**Mikel Estarrona**

Tas-tas irratiko kidea

EAEko lizentzia
banaketa
bidegabeaz**Imanol Lazkano**«Lagunik
handienari ere
ez diot sekula
bertsotan barkatu»**Alberto
Ladron Arana***Piztiaren begiak
nobelaz*«Irakurlea
engainatu dut,
gezurrik
esan gabe»**Energia
berriztagarriak**Frantziako
Tramayes herria
eredu**Larrun**Nola prestatu
irakasleak gaurko
gizarterako

Indartsu itzuli da EAJ agintera



argia 2013ko egutegia

ARGIA astekariko pasarteak

- Zientzia
- Deabruaren abokatua
- Denboraren makina
- Txisteak
- Bertsoak

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

ARGIAko eskaintza bereziak

EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA

9€

BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai
dagoeneko!



Azaleko argazkia:
LUIS JAUREGIALTZO/
ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko urriaren 28a, 2.342. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

JOSEBE ITURRIOZ: «Ez dago biolentzia matxistak baino gehiago hiltzen duenik». ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK Bakegintzaren aukera eta murrizketen arriskua. URKO APAOLAZA AVILA / 5

IRITZIAK ANA EIZAGIRRE, BERNAR MANDALUNIZ,
ZELAI NIKOLAS EZKURDIA, AITOR ZUBEROGOTIA / 10

HEMEROTEKA / 12

PERTSONAIA

IMANOL LAZKANO: «Plazari izu izugarria izan diot beti». S. COLINA / 14

GAIAK

MIKEL ESTARRONA, TAS-TAS IRRATIKO KIDEA: «Diala pribatizatzen ari dira, herritarren parte-hartzea ukatzen». M. GARCIA IDIAKEZ / 19

IRITZIAREN LEIHOA

AUSTERITATEAREN PORROTETIK ZOR ILEGITIMOAREN

KITAPENERA MIKEL ZURBANO / 22

ZER EGINEN DU PARISEK? JAKES BORTAIRU / 24

AHT-REN ZULOA ETA ZORRAK MIKEL ALVAREZ / 25

GORA PRO NOBIS A. URMENETA / 23

TXANDAN Nebraskak 30 urte. ITXARO BORDA / 24

BERTSO BERRIAK Talibanak. BEÑAT GAZTELUMENDI / 25

ZIRTAK Urguilu heteroa. BEÑAT SARASOLA / 26

ERDIKO KAIERA

ALBERTO LADRON ARANA: «Ez dut ezer orijinalik esan nahi, ahalik eta kalitate handieneko zer edo zer entretenigarria, baizik».

IRATXE ESNAOLA / 27

RIP-EKO KARLOS ETA PORTURI OMENALDIA Belaunaldiak batzen dituen kontzertua. IKER BARANDIARAN / 30

LIBURUAK ARITZ GALARRAGA / 32 **DISKOAK** I. BARANDIARAN / 33

ALEA Izua eta algara. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 35

ZIENTZIA J. AIZPURUA / 36 **LANDAREAK** J. ERREKONDO / 37

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 38

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

TERMOMETROA

TRAMAYES Energia berriztagarri elikatutako herria.

MIKEL ASURMENDI / 40

EUSKARA LAN MUNDUAN Teknikariak, langileak, liderrak... mahai bueltan. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 44

KUBAKO MISILEN KRISIA Apokalipsi nuklearra abiatuko zuten hitzak prest zeuzkan Kennedyk. GORKA BEREZIARTUA / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Transgenikoek kantzerra dakartela demostratu dute.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

JOSEBE ITURRIOZ

Biolentziarik gabeko aroan omen gaude;
ez denentzat, ordea.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Dani Blanco

«Ez dago biolentzia matxistak baino gehiago hiltzen duenik»

Emakume bat elkarrizketatu dudak bakoitzean, beti galdetu izan diot emakumetasunagatik.

Noski, emakumeak espezie bat dira eta galde-tu behar zaie emakumetasunagatik; gizonez-koei berdin galdetzen zaien bezala beren gizontasunagatik. Pena da Laura Mintegik lehendakari gai emakumea izateari garrantzi-rik eman ez izana.

Hara, emakume izateagatik bozkatu behar genuen Laura Mintegi!

Ez derrigor, Obama beltza zelako bozkatu ez zuten moduan. Baina balio inportantea du; gauzak normal, lehendakari gaiak gizonezkoa izan behar baitu.

Zure kasuan justifikatuta dago emakumetasunaz galdetzea, berdintasun teknikaria zara. Lan-bidea justifikatzeko eskatuko dizu orain batek.

Diru publikoa ezberdin banatzen den bitartean, gizonezkoek baliabide gehiago jasotzen dituzten bitartean, ezin justifikatuago dago.

Baina feminista erradikala izan daiteke berdintasun teknikaria? Ez luke izan behar diferentziarena?

Feministak oro har gara deabruak. Sistema androzentriko matxista misoginoa ez zaio inori erradikala iruditzen. Fama txarra jartzen zaio pentsamendu kritikoari. Eta jendarte berdinzale, libre, justuagoa izateko eraldaketa errotik eman behar da.

Tragikoena da emakumeaz hitz egiten dugu-nean beti biolentziaz hitz egin behar izatea.



Biolentzia estrukturala da, jaiotzetik subordi-nazio egoeran dago emakumea. Ez dago bio-lentzia matxistak baino gehiago hiltzen due-nik. Noizko lege antimatxista bat?

Zail, botere sistema bat mantentzea bada hel-burua.

Emakumeak toki batean mantendu behar dira, espazio pribatuan, etxekoandre, eskubi-de gabe. Oso modu efektiboan ezartzen da kontrola, beldurraren bitartez.

Badago pentsatzen duenik emakumearen kon-trako benetako biolentzia prostituzioa dela.

Prostituzioari bukaera emateko ezkontzari bukaera eman behar zaio lehen. Kontua da emakumeak sexualitatearekin botere eremu bat duela. Eta lagun prostitutek irakatsi dida-te unibertsitateak baino gehiago.

Amaia Montero gisako feminista batek esana: batzuetan emakumeek ezetz esaten dutenean, gizonak noraino iritsi nahi duen ikusi besterik ez dute nahi.

Munduko bortxatzaileak Amaia Monteroren-gana, ezetz esaten duen bakoitzean baietz esaten ari baita!

Baxuago, ETBn entzungo dizute eta.

19 urtetatik daramat lanean kalean. Telebistan behin atera eta mundu guztiak ikusten zaitu. Alde iluna ere badu; baina politikari eta jendarte alda-ketari garrantzi handiegia ematen diot *celebrity* bilakatzeko. ■



Bakegintzaren aukera eta murrizketen arriskua

EAJk uste baino errazago garaitu ditu EAEko hauteskundeak, baina EH Bilduk ere emaitza oso onak lortu ditu. Bien artean azken urteotako legebiltzar abertzaleena osatzen dute. Ez dirudi ordea burujabetzaren arloan ados jarriko direnik, bakegintza eta normalizazioa sendotzea izango da bien elkarlanaren lehentasunetako bat. Murrizketei dagokienez, aurrez aurre izango dira.

| URKO APAOLAZA |



EAJ indartsu itzuli da Eusko Jaurlaritzara, Eusko Legebiltzarreko zenbakiek akordio ugari egitea ahalbidetuko diete.

EAEKO POLITIKAREN ARGAZKI ERREALA zein den badakigu, 2009an ateratakoa baino erreallagoa bai behintzat. Hainbeste inkesta, aurreikuspen eta *hautesporraren* ondoren, herritarrek erabaki dute. Batetik, EAJ eta EH Bilduren arteko lehian jeltzaleak izan dira

garaile argi eta garbi. Sei eserleku, horixe da bien arteko aldea. Hauteskunde hauetako inkognita nagusietakoa argitu da beraz. Bestetik, azken 25 urteotako parlamentu abertzaleena izango da honakoa, nagusiki PSEk eta PPK nabarmen egin dutelako behera.



EH Bilduren emaitzak oso onak izan dira, baina ez du berak nahi bezala lehen indarra izatea lortu. Dударik gabe, bakegintza eta normalizazioaren gaia Eusko Legebiltzarreko agendan sartuko du bere 21 eserlekuetatik.

Iñigo Urkullu izango da datorren legegintzaldian Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta berari egokituko zaio krisi ekonomikoa, bakegintza eta burujabetzarako nahiak kudeatzea. Hiru arlo horiek aipatu zituen igande gauean, hurrenez hurren. Horretarako akordioak lortu beharko ditu eta ez du aukera gutxi izango, beste alderdiekin egindako ia edozein konbinazio baliatu dezake gehiengo osoak lortzeko edo oposizioaren aritmetikak zailtzeko.

Ezker subiranistaren gorakada itzela

Legebiltzarreko aurreko hauteskundeekin konparatuz gero, indar gehienek beherantz egin dute bozka kopuruan —eserleketan ere, noski, baina ezker abertzalearen ilegalizazioak desitxuratzen du datu hau—. EAJk eta PPK tankera bertsuan egin dute behera (-16.000) eta PSEk izugarri (-106.000). EH Bilduren kasuan, gorakada itzela izan da. Neurgailu

Ezker subiranistaren indar metaketak goia jo duela ematen du, eta agian beste estrategia batzuk bideratzeko beharra agertuko da orain


gisa kontuan hartzen baditugu EAren, Aralarren eta ezker abertzalearen bozka baliogabeak, 77.000 gehiago atera ditu koalizio subiranistak.

Hala ere, konparaketak soilik parametro horietan egitea engainagarria suerta liteke. 2011ko maiatzeko foru eta udal hauteskundeetan eta azaroko Espainiako hauteskundeetan indar independentistek lorturiko emaitza ikusgarrien ondoan, EH Bilduk ez du gora egin, eta aldiz EAJk bai. Jeltzaleek Amaiurri 40.000 botoko aldea atera zioten eta oraingotan 107.000 boto gehiago izan dira. EH Bilduk eserleketan EAEko lehen alderdi izatea zuen helburu, alternatiba gisa aurkeztu zuen bere burua, eta bistan da ez duela lortu.

Indar metaketak goia jo duela ematen du, eta agian beste estrategia batzuk bideratzeko beharra agertuko da orain. EiTbko platoan Rafa Larreina EAKo ordezkariak abstenitu diren horiengan jarri zuen begirada, “hortxe dugu bidea egiteko” esan zuen.

Hala ere emaitza onak dira koalizioaren-tzat. Bizkaian eta Araban sendo agertu da eta Gipuzkoan ez hainbeste —Amaiurrek baino 15.000 bozka gutxiago—, baina emaitza duinekin inondik ere. Gipuzkoan jarri dute lupa askok, emaitzok Bilduren kudeaketaz herritarrek pentsatzen dutenaren ispilu direlakoan. Hondakinen auzia eztabaidagai dagoen hain-

EAEko Legebiltzarreko eserleku banaketa



BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2012	2009
EAJ	383.565	399.600
EH Bildu	276.989	-
PSE-EE	211.939	318.112
PP	129.907	146.148
UPD	21.492	22.233

Abstentzioa	%34,2	%35
-------------	-------	-----

ALDERDIA	2012	2009
Ezker Anitza - IU	30.179	-
EB-B	17.301	36.373
Aralar	-	62.514
EA	-	38.198
D3M	-	100.924*

*2009an baliogabeko boto guztiak egotzi genizkion D3Mri

bat herritan EAJ gailendu izana gako horretan irakurri liteke agian, baita atez atekoa duten lau udalerrietan ezker soberanistek apenas higadurarik ez izana ere.

EAJk Gipuzkoan –eta baita gainerako lurraldeetan ere– izan dituen emaitza bikainak ez dira hainbeste EH Bilduren bizkar izan, batez ere PSE eta PPren bizkar izan direla dirudi, eta abstentzioak ez diolako oraingoan eragin; gisa horretan, historikoki lortu izan dituen emaitzetara hurbildu da.

Urkulluk diskurtso moderatua erabili du zentraltasuna lortu nahian eta kudeaketa ona egin beharraz temati hitz egin du. Badirudi hainbat herritarrek segurtasun berme handiagoa ikusi dutela EAJrengan krisiari aurre egiteko.

Bakegintza sendotzeko aukera

Iñigo Urkulluk “akordio zabal, anitz eta egonkorra” behar direla adierazi du, baina hori modu askotara uler liteke. Legebiltzarreko eserlekuen banaketa ikusita, ez dirudi EAJk hasieran behintzat gobernu akordiorik edo legegintzaldi hitzarmenik egingo duenik, ez du horren beharrik

rrako eserlekuen banaketa ikusita, ez dirudi EAJk hasieran behintzat gobernu akordiorik edo legegintzaldi hitzarmenik egingo duenik Eusko Jaurlaritza osatzeko, ez du horren beharrik. Nahikoa luke gai zehatzen inguruan adostasuna lortzea alderdi batzuekin eta besteekin.

Baina ez zaio komeni, ezta ere, basamortuan bere kasa ibiltzea, krisiaren beroak erreta amai baitezake, horregatik erantsi dio “egonkorra” hitza esaldiari. Beste kontu bat da nola gauzatzen den egonkortasun hori; EAJ artista da joko politiko horretan eta seguruenik izango du buruan formularik.

Lehentasuna krisia gainditzeko da Urkullurentzat. Krisi ekonomikoak baina, ezin du bazterrean utzi Euskal Herrian azken hamarkadotan izan dugun behar nagusia, bakea eta normalizazioa. Legebiltzarreko hauteskunde hauek normaltasun handiz egin dira aspaldiko urteetan lehen aldiz. ETAk borroka armatua uztea erabaki zuen iaz eta ezker aber-



Legegintzaldi honetan burujabetzaren gaia mahai gainean egongo da, batez ere faktore exogenoen eraginez. Katalunian irekitako prozesuak eta Eskoziako erreferendumak horretara bultzatuko dute.

tzalea ilegalizaziotik irten da aurtan —nahiz eta, ez dezagun ahaztu, bere lehendakariari “naturalak” kartzelan jarraitzen duen—.

Aukera paregabera sortu da bakegintzari bultzada berria emateko, eta bide hori egin nahi duten alderdiak nagusi dira Legebiltzarrean. EAJ eta EH Bildu arlo horretan elkar hartuta ez aritzea, ulertezina litzateke euskal herritarren gehiengoarentzat. Dударik gabe, EH Bilduk bere 21 eserlekuak gai hau etengabe agendan egoteko baliatuko ditu.

Alde batetik, Aieteko bigarren puntua aktibatzeak akuilua izan liteke Eusko Legebiltzarra, Espainiako Gobernua ETArekin hitz egitera mugiarazten saiatzea, hori izan beharko luke zeregin nagusietakoa. Bestetik, indar guztiak ordezkatzuta dauden erakunde garrantzitsuak daukagu orain. Oroimean, elkarbizitzan eta berradiskidetzan aurrera egiteko mekanismoak martxan jar daitezke, ponentzia, batzorde edo dena delakoen bidez.

Beste kontu bat izango da burujabetzaren gaiari dagokiona. Alderdi abertzaleek Gas-

teizko hemizikloaren ia bi heren kontrolatzen dute —48 eserleku abertzaleek eta 27 konstituzionalistek—, eta logikoa litzateke abagunea aprobetxatzea burujabetza gehiago lortzeko, baina adostasun hori urrun dago oraindik, hauteskunde kanpaina esandakoak entzun eta gero behintzat.

EH Bilduk “Europar estatu libre” izateaz hitz egin du argi eta garbi, eta hori lortzeko eskua luzatu dio EAJri. Urkulluk, subiranotasun “konpartituaz” hitz egiten du, 2015ean estatus politiko berria lortzeaz, eta horretarako lehenik Konstituzioa eraldatzeaz. Hor-taz, ez mamian ez azalean dute bat egiten bi indarrek bide-orri bat finkatzeko.

Dena dela, burujabetzaren gaia mahai gainean egongo da legegintzaldi honetan, batez ere faktore exogenoen eraginez. Kata-

luniako hauteskundeek eta Principat-ean irekiko den prozesuak, hala nola Eskoziako 2014ko erreferendumak halaberrez sortuko dute halako giro bat burujabetzaz eztabaidatzeko.

Aieteko bigarren puntua aktibatzeak akuilua izan liteke Eusko Legebiltzarra, Espainiako Gobernua ETArekin hitz egitera mugiarazten saiatzeko

GALIZIAKO HAUTESKUNDEAK

Abstentzioak eta boto sakabanaketak lau urte gehiago eman dizkiote Feijóori

GALIZIAKO hauteskunde autonomikoek ezusteko emaitza ekarri dute. Alderdi Popularrak berriztu egin du gehiengo absolutua eta Alberto Núñez Feijóo beste lau urtez izango da Xuntako presidentea. 170.000 boto galdu arren eta portzentajearen atzera egin arren lortu du hori. Bigarren ezustea Alternativa Galega de Esquerdak –Xosé Manuel Beirasek gidatzen duen Anovak eta Izquierda Unidak osatutako koalizioak– lortutako bederatzi eserlekuak izan dira. PSOEek hondoratzea izan du, 25 eserlekutik 18ra igarota eta lau barrutietan atzerakada eginez. Bestalde, BNGk ere ordezkartza galdu du; 12tik 7ra jatsi dira parlamentuko eserleku abertzaleak.

Sondeo bakar batek ere ez du asmatu. Aitzitik, CISEk kanpaina hasieran argitaratutakoak oso bestelako irudia eskaini zigun, PPk gehiengo absolutua galtzea benetan aintzat hartzeko moduko aukera zelarrik. BNGren igoera bat ere iradoki zuen, eta AGE parlamentuan sartuko zela iragarri bazuen ere, eserleku bakarra egotzi zion.

Abstentzioa –aurreko hauteskundeetako baina zer-txobait handiagoa– eta PPren oposizioak jasotako bozen sakabanaketa –BNGren zatiketarik hautagaitza berriak eman ditu, AGE eta Compromiso por Galicia esaterako– funtsezkoak suertatu dira PPk berak, hauteskundeak hasi baino ordu batzuk lehenago, galtzeko arriskuan ikusten zuen gehiengo absolutua bermatzeko.

AGE eszenatoki politiko berrian sartzeak, 200.000 boto jaso arren, PPren alternatiba diren indarren batura murriztu du; 2009an, BNGk eta PSOEek, biek batuta, PPk baino 6.000 boz gehiago eskuratu zuten, eta joan den igandean, berriz, popularrek beren aurkarien batuketak (AGE barne) baino 10.000 gehiago lortu dituzte. Aipagarria da, era berean, baliogabeko botoak eta boto zuriak izan direla galiziar hautesleen bosgarren hautua: 75.000 boto inguru, eta 2009ko portzentajearen bi halako baino gehiago. ■

Xabier P. Igrexas

♦ SERMOS GALIZA ALDIZKARIKO KAZETARIA

Murrizketen arriskua

Bistan da hauteskunde hauen emaitzak ez direla onenak izan murrizketari erakundeetatik aurre egiteko, EAJk PPren edo PSeren babesa bila dezake, halabeharrez bada ere, guraizeak sartzeko.

Finantza Kontseiluan jakingo da Eusko Jaurlaritzaren diru-kontuak gutxi gorabehera nola dauden eta Patxi Lópezen Gobernuak nolako kudeaketa egin duen; EAJren aburuz 1.000 milioi eurokoa ere izan daiteke zuloa. Zentzu horretan, Urkulluk behin baino gehiagotan azaldu du murrizketak egin behar dituela Jaurlaritzara iristen bada, baina hainbat marra gorri jarri ditu: osasungintza, hezkuntza eta zerbitzu sozialak. Arlo horie-

tan ez luke murrizketarik egingo. Baina Zapateroren Espainiako Gobernuaren murrizketak babestu dituenak dio hori. Ekintzekin egin beharko ditu bere hitzak sinesgarri.

Jakina da EH Bilduren eta EAJren ikuspegiak oso ezberdinak eta batzuetan ia antagonikoak direla gizarteko zenbait arlotan, bereziki azpiegitura handien gaian. AHTA eraikitzea ezinbestekotzat dute jeltzaleek, Jaurlaritzak Madrili bere poltsikotik diru kopuru bat aurreratzeko prest ere agertu dira obra hori ez gelditzearen. Baina ez dute azaldu nola uztar litekeen hori eta gizartean eragina izan dezaketen murrizketak ez egitea. ■




INAKIBEREZIARTUA
 Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza



25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
 www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARISOL RAMIREZ / A. P.



Aitor Zuberogoitia



MONDRAGON
UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEA

Hiru gogoeta aro berrirako

EGIN DUTE berba EAEko boto-kutxek eta jeltzaleak erraz gailendu dira. Ez da, beraz, abentura-haize handirik izango bazterretan, baina dudarik ez berandu baino lehen aldaketak izango direla EiTbN. Hiru gogoeta, horren harira.

– EiTb erakunde publikoa da, baina horrek ez du esan nahi unean uneko hauteskunde-emaitzen menpe egon behar duenik. Beronen izaera eta eginbideari buruzko kontsentsu zabala berritzeko garaia da (ez gaude duela 30 urteko kinka berean), eta, behin hori erdietsita, aginte politikoarekiko daukan autonomia sendotuko duten neurriak sustatu behar dira.

– EiTb ez luke jarraitu behar izaten diglosia zurkaizteko tresna, bere hedabide batzuek ez lukete segitu behar euskaldunak gaztelaniaz berbetan jartzen, populazio-sektore zabal bati hizkuntza-errealitate jakin bat ezkututzen eta monolinguisismoan eroso bizitzeko makulua

EiTb ez luke jarraitu behar izaten diglosia zurkaizteko tresna

eskaintzen. Telebistara etorrita, pentsa dezagun, Josu Amezagak planteaturikoari jarraiki, ez soilik euskal hizkuntza-komunitatea, ezpada gizarte osoa artikulatzeko funtsezko erreminta izango den ETB eleantza, euskara ardatz nagusi izango duena

eta egun eskura ditugun aukerak baliatuta (audio duala, azpidatziak) euskara ez dakitenak ere bere programaziora erakarriko dituen.

– Multieskaintza garaiotan euskal gizartearen egituratze-tresna nagusi eta erreferentzia eztabaia daezin bihurtzeko, azkenik, EiTb ezinbesteko du komunitatea eratzen jarraitzea eta sustaia are sakonago errotzea, eta tokiko telebistarekin harremanak estutzeak horretarako

aukera eman diezaiokie (izan deskonexioen bidetik, izan Tokikomek iradokitako bisolairudun etxearen eraikuntzari lotuta). ■



MARISOL RAMIREZ / A. P.



Bernar Mandaluniz



LAN
MEDIKUNTZAN
ESPEZIALISTA

Osasun publikoa bermatzeko ildoak

OSAKIDETZAREN izen ona lehenagotik zetorren eta azkeneko legealdian neurri sendoak hartu ditu mantentze aldera, Madrilen presioa hein handi batean ekidinez: finantziarioa mantenduz, botika generikoen arloan gastua gutxituz, berrordainketari muzin eginez.

– Irabazlea EAJ da. Irizpide horren aldekoa da neurri handi batean behinik behin, nahiz eta osasun pribatuari ere keinuak egin: kohabitazioa hemen ere, agian.

– Legebiltzarrean talde sendoa dago EH Bildurekin. Bide honen defentsan adierazi du bere egitasmoa, eta bere xedea hori izango da: zerbitzu publikoa, gardena eta hurbila.

Honaino osasun publikoa mantentzeari buruzko irizpidea. Baina iraupena bermatzeko ahalegin asko egin beharko dugu:

– Antolakuntzaren hobekuntzak: sistemak zulo asko ditu eta eraginkorragoa egin behar da, gaixo eta erizainen arteko harremanak sendotuz eta hurbilduz.

– Lehen mailako artatze antolakuntza sendotu behar da eta kalitatez hornitu,

ospitalak gaixoz gutxituz, bere eginkizun berezitik atera ez daitezzen.

– Botika gastuak murrizten jarraitu behar da: bizitza medikalizatu dugu neurri handian.

– Osasun langileak zaindu, lan berezia denez arreta ere berezia behar dutelako: lan baldintzetan, lanaren onespenean eta egitasmoetan parte-hartze zuzenagoa izanez.

– Ospitaleko egonaldiak laburtu, etxean gero eta arreta eta zerbitzu gehiagoz eta hobeagoz inguratuz gaixoa.

– Gaixotu aurretik prebentzio lana sustatu eta ugaritu, gaixotu aurreko programak eta osasuna sendotzeko egitasmoak martxan jarritz, beti ere, gizabanakoen autonomia dugula helburu.

Programa hauetan, gizabanakoaren parte-hartzea ezinbestekoa da, gure helburuetan burujabetasunaz gain, gorputz jabetasuna ere aldarrikatu behar dugu.

Etorkizuna, osasunaren aldetik, arduratsua, kezagarria eta interesgarria datorkigu, izan gaitzen partaide eta protagonista. ■



Hezkuntza sistema propioa

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK dituen erronka eta beharrei ez die erantzuten Hezkuntza Ministerioak proposatu duen erreformak. Ekimen honi aurre egin behar diogu, legea errefusatuz eta hezkuntza sistema propio, publiko, euskaldun, inklusiboa eta adostasun sozial eta politikotik jaioa den sistemaren alde lan eginez.

Hezkuntzaren kalitatea sustatzeko irakaskuntza publikorako proiektu espezifikoia izatea eskatzen diot Jaurlaritza berriari, herritar ororen oraina eta geroa bermatzeko. Horretarako, aspektu hauek sakondu beharko lirateke:

– Inklusibitatea, egitatea eta aukera-berdintasuna hezkuntzaren xede nagusiak izatea, ikasle bakoitzak behar duen curriculum-erantzuna ziurtaturik izatea, ikasleria osoaren eskola-arrakasta bermatzeko.

– Ikaskuntzaren etengabeko hobekuntza, lehentasun osoa emanez barneko kalitatezko kudeaketa eta ebaluazio ereduak, langileen egonkortasunari, zuzendaritzaren

lidergoari eta ikastetxeen autonomiari, hobekuntza integrala ahalbidetzeko.

– Hezkuntza-sistemaren finantziaketa hobetu behar da: hezkuntza publikoak finantzaketa eredu espezifikoia izan behar du, ikastetxe publikoetan sortzen diren erronkei eta eskakizunei erantzuteko.

– Kudeaketa ekonomiko deszentralizatu: administrazioaren eta ikastetxeen arteko erantzukizun partekatuan oinarritutako kudeaketa ekonomikoa.

– Ikastetxe publiko berriak eraikitzeke plan bat zehaztea, ikaspostu publikoen eskaeraren hazkundeari erantzuteko.

– Elkarriketa iraunkorra: irakaskuntza publikoko hezkuntza-eragileek ezinbesteko erreferentzia izan behar dute, eskola publikoaren eredu parte-hartzailea eta deszentralizatu

tua sendotzeko. Erakundeen arteko elkarlana, hezkuntza-sistema iraunkorra eta espazio sozialean jarraipena duena. ■

Irakaskuntza publikorako proiektu espezifikoia eskatzen diot Jaurlaritzari



DANI BLANCO

Ana Eizagirre



EHIGEKO
KOORDINATZAILE
OHIA

Lehendakarigai hori

ONDO DAKIZUNEZ, aldaketa garaia bizi dugu eta gaurtik aurrera Euskal Herriaren biziraupenerako eta bizikidetzarako ezinbestekoak izango diren hitzarmenak egiten saiatuko zarete ordezkari politikoak, gu guztion ize-nean. Bada, hauteskunde hauetan herritar gehienok hautu abertzalea egin dugu eta datu hori komeni da begi-bistatik ez galtzea.

Euskal Herriko zati honetan herritar gehienon nahiak balore abertzaleekin bat egiten du eta horien artean, nola ez, euskara eta euskal kulturaren sustapena dugu. Baina, beste arlotan ere agerian geratu denez, orain arteko hizkuntza politikak eman du eman beharrekoa. Asko, gutxi, nahikoa edota behar bestekoa eman ote duen iritzia kontu bat izan daiteke, baina datu bat da euskarak eta euskalgintzak ziztada eta bultzada sendoa behar dutela, azken hamarkadetan euskara biziberritzeko eta euskaraz bizitzeko aukera errealak sortzeko egindako ahalegin izugarri hau ez dezan krisialdi latz honek desegin.

Euskaldunok gero eta esparru gehiagotan bizi nahi dugu euskaraz normaltasun osoz

eta euskal herritarren bizikidetzaz linguistikoa errespetuan eta elkartasunean oinarrituta egon dadin nahi dugu. Gu prest gaude horren alde gure esku dagoena egiteko, baina zuek politikariek eta bereziki lehendakariak ardura berezia duzue horretan.

Euskarak, gaur arte iraunarazi badu, herritarrok gure hizkuntzarekiko izan dugun maitasunari esker izan da. Maitasun hori, nolanahi ere, babes instituzional eta sozial sendoaren bidez zabaldu behar dugu, sendo eta konplexurik gabe, euskararen ezagutza euskal herritarren artean zabaltzen jarraitzeko eta euskaraz bizitzeko gero eta arnagune gehiago sortu ahal izateko.

Euskarak eta euskal kulturak hitzarmena behar dute. Hitzarmen horren bidez euskarari zor zaion zentralitatea eman behar zaio, bai Eusko Jaurlaritzaren egiturari eta jarduerari bertan, baita martxan jartzen diren politika publikoetan ere. Lehendakarigai hori, arren: entzun, pentsatu, sentitu eta egin! ■



ZALDI ERO

Zelai Nikolas Ezkurdia



LEGELARIA

Arantxa Urretabizkaiak, ETB1en:

“EAJk orain arte ez du argitu nola jokatu duen independentziarekiko, eta ez naiz ausartzen esatera Legebiltzarrean EH Bilduk edukiko duen presentziak noraino eragingo dion horri dagokionez”.



DANI BLANCO

Iñako Soto Garako zuzendariak, Hamaika Telebistan:

“Ilegalizazioen zikloa bukatu eta gehiago abertzalea lortu izanari egingo diogu kasu. Gehiago liderra izateaz kontziente, beraien artean eta besteekin adostu behar dute orain. EH Bilduren emaitzak Araban ikusgarriak izan dira. Bizkaian ere indartu da. Gipuzkoan gora ez baina behera oso gutxi egin du. Kontrako bozka bat izan du eta hori EAJra joan da. Orain akordio zabalak eta anitzak egitea litzake helburua”.

Juanjo Alvarezek, Radio Euskadin, Gipuzkoako emaitzez:

“Kudeaketak desgastatu egiten du, hori pankartan egotea baino zailagoa da”.



DANI BLANCO

Emilio Contreras, SER katean:

“Euskal nahiz galiziar sozialisten porrota ez da Pérez Rubalcabarena, porrotaren kausak batez ere hauexek dira: herritarren parte batek ez du oraindik asimilatu Rodríguez Zapatero-k (Chacón ondoan zeukala) egin zuen politika txarra, hots, krisi ekonomikoaren kudeaketa txarra. PSOEek oraindik ez du egin krisi ekonomikoaren azterketa sakona, hori egin ezean, ezkerreko boz-emaleen sostengua galduko du aurrerantzean”.


ANDONI CANELLADA



Nerea Azurmendi
kazetariak
Euskadi Irratian
esan duenez, kanpainan eman ez duten maila

eman behar dute orain alderdiek. Bere hitzetan, indefinizioan aritu dena, indefinizio deliberatuan, erantzun argirik eman gabe, onik atera da emaitzetan, aurreikusita zegoen panoramaren esperoan, eta horrek gogoetatzeko eta politikagintzaz ditugun ideiak astintzeko balio behar liguke.

ATXASPI HOTELA



Bittiria, 24 • Lesaka (Nafarroa) • T.: 948 637 536 • hotela@atxaspi.com • www.atxaspi.com





DANI BLANCO

Mariano Ferrer,

PSEren legegintzaldia baloratzen:

“Alternantzia ona izan zen –hauteskunde moldea egokia ez zen arren– baina ez dut uste berak ekarri duenik ETAren amaiera eta uste dut krisiaren aurrean beste era batera jokatu behar zuela”.

ETB



Alfredo Retortillo Ipsos enpresakoa, ETB2n:

“EAJk bakarka agintzea dirudi bideak, baina Urkulluk akordioak bilatu beharko ditu erabaki zailak hartu beharko dituelako. Akordio sendo bat gabe gobernatzen hasiz gero, Urkulluk aurrean blokatzeko moduko oposizioa aurkituko luke. Hasieran ez izan arren, urtebete barru-edo gobernu ituna eduki beharko du EAJk beste alderdietako batekin”.

Jose Luis Lizundiaren

aburuz, Ezker Batuan hainbeste zatiketaren ondoren erraz aurreikustekoa zen Gasteizko Legebiltzarretik desagertuko zirela bata zein bestea. Espazio horrek ordezkaritza galtzea ona ez dela ere esan du Lizundiak.



EUSKOMEDIA

Maite Ubiriak

gogorarazi du Urkulluk esan zuela irabazteko agintaldiko lehen urte bietan krisiari aurre egitea izango zela bere lehentasuna. Hori ez dagoela subiranotasunaren aferatik aparte dio Ubiriak, “krisiari aurre egiteko hain zuzen subiranotasun ekonomikoa berreskuratzeari ekin beharko baitio”.



GARA

Pili Kaltzadak ETB1en dio EH Bilduk bere botoak jaso dituela, eta EAJk, berriz, bereak eta ongizatearen esperantzaren botoak ere, PSE-EEtik alde egin dutenak.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA

«Plazari izu izugarria izan diot beti»

Europa osoa linterna batekin pasa eta...

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Euskal Herrian, zergatik dira enpresari asko eta asko baserritarrak?

Baserria delako munduko unibertsitaterik oso-ena. Haurrak, jaiotzen den momentutik, naturarekin harreman zuzen-zuzena izaten du eta oharkabea txertatzen zaio naturaren funtzio-namendu osoa. Inork esplikatuz gabe ikasi nuen amak egiten zuela umea. Behiak, txakurrak, txerriak, erditzen ikusten nituen, oiloak arrautzak jartzen, eta begi bistakoa zena ondorioztatzen besterik ez nuen egin. Gero, hainbeste lagun biltzen gintuen sukaldeko mahai handi hartan, egunero kontatzen zizkigun amonak azokako gorabeherak: zenbatean saldu zuen esnea, zenbatean zeuden arrautzak, zenbat ordaindu behar izan zuen olio... Dena. Etxean behi bat erosi behar bazen, mahaiko tertulian eta haurren bistan hartuko zen erabakia, eta guk behia erosteko sosak txekorrak salduta eskuratuko genituela natural-natural entzuten genuen. Beharra bezalako maisurik ez dagoenez, baserrian sortzeak munduaren errealtatean murgilduta bizitzea dakar. Hori gutxi ez, eta oinez ikasi orduko ardurak eransten zizkiguten, gurasoak siestan zeudenean etxeko erremintekin gure jostailuak sortzen genituen... 14 urterekin kalera lanera hasi ginenerako gizon koxkorrek eta erdi ofizialeak ginen! Pentsamendua lantzen ohituak geunden, lan-tresnak erabiltzen saiatuak, eta naturaren logika eta negozioa sena barneratuak geneuzkan. Gaur egun, enpresariak sortzeko unibertsitate bereziak daude, baina lehengo baserri askotan debalde ikasten zen hori, inolako konpromisorik gabe.

Orduko gizarteak zer konpromiso zuen hitzarekin? Zer zen hitza zuentzat?

Gure jolaserako tresna. Elkarrengana bildu eta elkarrekin gozatzeko aukera zen hitza.

Hitz egitea zen orduan balio zuena. Batzuetan serio, bestetan umorez... Hitzak gaur baino balore gehiago zuen. Aurrerapenaren izenean egin dugun mundu madarikatu honetan jendea geroz eta bakartiago bizi da. Azpeitia baino herri handixeagoetara joan eta etxe-orratz altu horietan bizi den jendea diruz aberatsa izango da baina errukia ematen dit. Etxeratzeke igogailuan sartu eta bakarrik nahiago. Otordu garaian telebista martxan. Etxean zenbat lagun bizi diren hainbeste ordenagailu. Oso bizimodu bakartia egiten dugu, elkarrekiko komunikazio gutxikoa, eta horrek, nire ustez, pertsonaren nortasunari aberia handia egiten dio. Pertsona abere bat da, eta beste abere asko bezalaxe, taldean ibiltzekoa dela esango nuke. Oraindik ere, giro sano-sanoan bizi diren 80 urteko aitona irribarretsu ikusten ditugu eta zenbat 20 urteko gazte samindu... Lagunarteko elkarriketa, penak eta pozak elkarri kontatzea, elkarrekin gozatu eta sufritzea, horixe da niretzat gizakiaren mundua.

Zuretzat hitza apustua ere ez ote den...

Jakina, jolaserako erreminta apustu bihurtzen da. Bertsoa ere horixe da, azken batean. Herri

NORTASUN AGIRIA

1936ko urtarrilaren 12an Azpeitian jaio zen bertsolaria. 1982 eta 1989ko txapelketa nagusietako finalista, 50 urtetik gorako ibilbidearen ostean, abenduan esango dio agur plazazko jardunari. 1987tik 2005era Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria izan da, eta 2003an *Aho-bizarrik gabe* izeneko memoria liburua argitaratu zuen. Bertsolari lanak etxegintza enpresako zuzendari-tzarekin uztartu ditu.





Azpeitiko plaza

“Uztapideri entzunda nago berezia zela Azpeitiko plaza. San Tomas eguneko saioa hamabiak puntuan hasten zen, eta bertsolariak udaletxeko balkoira ateratzen zirenean hamar bat lagun baino ez ziren egongo. Laugarrenak agurra kantatzerako ordea, inguruko tabernetatik ateratako jendearekin plazak gainez egiten zuen, denak erne, ez bertsoak entzuten bakarrik, saioa jaten”.

batera bertsotara banoa, alferrik izango da ondokoa bertsolari onena, ahal badut hobe kantatuko dut nik. Bertsolarien artean aparteko lagunartea ezagutu dut beti, baina lagunik handienari ere ez diot sekula barkatu. Ez dut sekula bertso txarragorik bota ondokoa ondo gelditzeagatik. Jolasa eta aldi berean apustua. 13-14 urterekin Santa Ageda eskean hasi nintzen kantuan, eta aurreko hilabeteetan, orain txapelketarako egiten den bezain prestaketa serioa burutzen genuen. Inguruko baserrietako ate ondo guztietan kantatzen genuen gure gisa, eta eguna heltzean, egurra. Beranduxea ere, erromeriara joaten hasitakoan, aste osoko buru-gimnasia jai arratsaldean gu bezalako sasi-bertsolari batekin egingo genuen saiora begira egiten genuen. Gustuko neska bati lagundu eta gustuko bertso saioa irtenez gero jai arratsalde borobila zen guretzat. Horixe zen gure bertso eskola. Ez dago sekreturik, bertsotan aurrera egin nahi duenak ofizioaren mozkorra izan behar du, afizioa baino gehiago bizioa. Bertso eskolan dabilatzanei askotan esaten diet: “Astea behin bildu, bertsoekin jolastu, eta elkarrekin trago batzuk hartuta konforme bazaudete primeran, baina norbaitek bertsolari izateko ilusioa badauka bertso eskolako ordubetea du aste barruan bakarka egin duen lana erakusteko eta beste astebeterako indarra hartzeko

tokia”. Segi, segi eta segi, ez dago besterik. Bertsoa ez baita errimatzea eta neurtzea bakarrik, munduari aurrez aurre begiratu behar zaio, datorrena datorrela zure galbahe-tik pasa, eta zentzu handi batean, horretarako bizi behar zara.

Zu plazaz plazako ibilera eta enpresari lana uztartuz bizi izan zara urtetan. Sortu dizu horrek krika-krakarik?

Norbere nortasunaren arabera da hori. Zabiltzan lekuan egiten duzunarekin bakean bazaude, agintzen dizuten paperetik lasai asko eman dezakezu iritzia. Hor ez dut arazo gehiegirik izan. Gaintontzean, bertsoa gazte-gaztetako bizioa izaki, arnasa eman izan dit bertsotara joateak. 1986an, artean nahiko enpresa gaztea ginela, ordainketak eten behar izaterainoko zaparrada eman ziguten Zumarragako obra batean genbiltzala. Enpresa nire izenean zegoen, eta ufa, ez ziren garai ederrak. Harrigarria bada ere, une estu haietan bertsotara joatean soilik ahanzten nuen loa kentzen zidan enpresaren zama. Freskagarria zitzaidan nire munduan sartu eta gaintontze-koa ahanzte, eta nire mundua, bertsoa izan nonbait.

Zure mundu horretan, unean uneko bertsoke-retara egokitzeko ahalegina egin duzu beti.

Bertsolari bakoitzak izaten du bere pentsaera, eta gustuko ispiluan lantzen du bere burua. Ni munduarekiko zabalik egoten saiatu naiz. Bertsolari belaunaldi bat, sekulako bertsolariz osatua egonagatik, Elizaren eta orduko giroaren mendeko mezu zaharkituekin itzali zen. Horregatik, onena izanagatik, ez nau sekula bertsoakera bakar batek itsutu. Gustatu zaizkit Lasarteren txukuntasuna eta errima, Lazkao Txikiren umorea,

Ziria

“Onerako eta txarrerako herri adar-jotzailea, burla egiten ona, izan da gurea. Harrotik ere dezente daukagu azpeitiarrok, eta azkoitiarrei iseka egiten gustura egoten gara, baina azkoitiarrik ez badago elkarri sartzen diogu ziria. Uste dut gimnasia horretan izugarri trebatzen dela pertsona, baina gaur egun zailagoa da hizketarako guneak topatzea. Tabernetan, esaterako, ez dago hitz egiterik, ezta entzuten ari zarena musika edo txakur borroka den antzematerik ere”.

Xalbador-en sakontasuna, Agirreren ziria, Joxe Lizasoren garboa... Zergatik ez ahalegindu bakoitzetik ahal bezainbat lantzen? Ni horretan saiatu naiz, munduari aurrez aurre begiratuz, eta gaurkotasuna nire iragazkitik pasaz. Ez dut inoiz sinetsi lehengo dena ona eta gaurkoa dena txarra denik, eta gustagarria edo ona iruditu zaidana nirean txertatu besterik ez dut egin.

Alabaina, gerora, zure belaunalditik euren berezko bertsokerari eutsi diotenak baloratu dira gehien.

Hala da. Gutxi gorabehera azken 100 urte hauetako bertsolariak ezagutu ditut, eta oraindik ez ditut bi berdin topatu. Herriak onartu duen bertsolari bakoitzak dauka bere xarma puntua, bestela ez litzateke onartua izango. Orduan, bakoitzak saltzen duena eskatzen du herriak, eta nahi ala ez, horren arabera ere lantzen du bertsokera bertsolariak. Joxe Agirrek esan dituen gauza askok ez dute tutik balio nik esanda, ezta Andoni Egañak botata ere. Joxe Agirrek bere bertsokera landu du, lehengo klasikoetako azkena izan da, jendeak horixe eskatzen zion, eta berak horixe eman. Bakoitza den bezalakoa delako egiten du ahalegina bere eremuan, eta zer ederragorik bertsolari bakoitzak bere nortasuna edukitzea baino. Horixe da gakoa, inork ez du plastikozko bertsolaritzarik nahi.

Pertsonalki zer utzi dizu Euskal Herriko Bertsozale Elkartean egindako ahaleginak?

Hainbeste iritzi ezberdin eta hainbeste eztabaida egosten ziren marmitaren parte izateak nire burua janzten lagundu dit. Izan dira urte zail-zailak baina beti eutsi diogu baikortasunari. Bilera gogorrena bukatzean ere, trago bat edo beste hartu, umore ederrean kontuak esan, eta ilusioz beteta itzultzen ginen etxera. Horrek asebate nau, oso eroso sentitu naiz beti. Baliteke denbora gehiegi egon izana lehendakaritzan, baina nik dena zor diot bertsolaritzari, eta dena zor duenak ezin ezer ukatu. Iñaki Murua segida hartzeko prest agertu zenean oso gustura laga nuen kargua, ez deseroso nengoelako, elkartearentzat ni baino jende gazteagoa eta gaurkotuagoa komeni zela sine-tsita nengoelako baizik. Elkartek orain arteko filosofia eta talde giroari eusten badio asko dauka emateko. Bertsolaritzari lagundu nahi dionik badago, beti izango ditu ateak zabalik. Heldu garen tokira heldu bagara hainbeste jenderen musu-trukeko lanari esker da, eta geroz eta profesional gehiago egon arren, aurrerantzean ere horixe izango da elkartearen motorra.

Elkarteko lehendakaritzatik ez ezik enpresatik ere jubilatatu zinen. Nola ikusten dira etxegintza-ren burbuilaren leherketa eta bizi dugun krisia erretiroaren talaiaitik?

Betikoa pasa da. Azpeitia inguruko baserri erdiak-edo markesenak, kondeenak edo dukeenak ziren, eta Azpeitian bezala Espainiar penintsula guztian. Espainia, eta hari lotuta Euskal Herria, beti egon da handiki batzuen menpe. Horiek mugitu dute dirua, aldian aldiko agintariak morroi bihurtuz, eta morroi zintzoenak sarituz. Aurrerapenaren izenean diruarekin dirua egiten hasi ziren, eta burbuila horretan gastatu dute zeukatena eta ez zeukatena, jendeari zoriona kontsumoa zela sinetsaraziz. Gure gurasoek dirua aurre-



Atxurra Hotela
Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com



ratzea dirua gordetzeari esaten zioten, baina orain eduki aurretik gastatzeari esaten zaio! Noren buruan kabitzen da oporretara joateko kreditu bat ematea? Baina holaxe ibili gara, denak aberatsak ginela sinetsita, eta makinak pot egin duen garaian komeriak. Orain garbi dagoen bakarra da aberatsak lehen baino aberatsago izango direla denon diruarekin erreskatatuko ditugulako, eta beste guztiei arrastaka ibiltzea tokatuko zaiela. Gainera, oraintsu arte dena diruaren mugimenduan oinarritzen zenez, jauntxoak “ez al ditugu langileak ongiegi ohitu?” pentsatzen hasita daude eta konpetenteak izateko orain 80 urte bezala langileak esklabo bihurtzeko ideia darabilte buruan. Txikia txikitzeraz doaz, edozer onartu dezan makurraraztera, baina era berean irteerarik gabeko paradoxa baten menpe daude. Sistema osoa kontsumoaren inguruan muntatuta badago, nola kontsumituko du kontsumitzeko dirurik ematen ez zaionak? Horrexegatik bizi dugu konpontze-

AZKEN HITZA

Euskaraz

“Ume koxkorak ginela, guri eskolak ematen zizkiguten maristak, herriko bederatzikomentutan zeuden erlijioso mordoak, dozena erdi bat guardia zibil eta herriko jueza izango ziren Azpeitian euskaraz ez zekiten bakarrak. Entzuten genuen Donostiara joandako hemengo jendea multa bat edo beste ordainduta zegoela euskaraz hitz egiteagatik, baina Azpeitian ezinezkoa zen horregatik zigortzea, %50ak baino gehiagok hitzik ez zekielako erdaraz, eta ondorioz, ezinezkoa zelako erdaraz hitz egitea”.

ko itxurarik ez daukan eta nik ezagutu dudakrisirik gorriena.

Erretiroaren katearekin segituz, plazetako ibilbideari agur esango diozu aurten.

Alde batetik pena ematen dit. 50 urtetik gorako ibilian, Euskal Herri osoan lagun-giro bat osatzen duzu, familia bat, eta horrekin mozte ere bada plazatik erretiratzea. Baina bestetik, aurrekoan Joxe Agirreri esaten nion bezala, bertsolari batek ez du herri batera errukia ematera joan behar. Umorea saldu eta sasoia erakusteko dago bertsolaria. Gainera, agian neurtu eta errimatzearekin konformatu ez naizelako, plazari izu izugarria izan diot. Milaka bertso kantatuko nituen plazan, baina sinesten al duzu ez naizela sekula gustura hasi? Gero bai, izotza hautsi, herriarekin konektatu, eta gustura jardun milaka aldiz, baina bat-batekotasun horretan bizitzako egun onena edo txarrena izango duzun ez denez probatu arte jakiten, izu izugarri hori nirekin eraman dut beti. Hori adinean gora joanda ez da gutxitzen, eta zertan ibili behar dut nik nerbioak aidean? Badakit zerbait txukuna egin badut eginda dagoela, eta egiteke utzi badut, ez dudala aurrerantzean egingo. Zer arraio, bere garaian erretiratzen jakiteak ere badu bere grazia. ■



KANPORAKETAK

B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2012

www.bizkaikotxapelketa.biz

AITOR ARRUTIA
ASIER LEGARRETA
JOSU LANDETA
JULEN EREZUMA
OIHANA BARTRA
UNAI ORMAETXEA

AMOREBIETA-ETXANO

Azaroaren 4an, domeka
17:30ean - Zelaieta zentroa











«Diala pribatizatzen ari dira, herritarren parte-hartzea ukatzen»

EAEko irrati frekuentzien banaketa 1986an egin zuen azkenekoz Eusko Jaurlaritzak. Berriki, dekretu polemiko baten bidez, hauteskundeen aurreko astean 34 lizentzia banatu ditu. Besteak beste, Onda Vascak 30 eskaeratik bakarra lortu du eta kanpoan geratu dira Ttán Ttakun, Gara Irratia, Bilbo Hiria eta Hala Bediren proiektu elebiduna. Baita Tas-Tas ere. Bilboaldean hogei urte emititzen daramatzan irrati libre eta komunitarioko kide Mikel Estarronarekin mintzatu gara.



“Gizartearen babesak ematen digu zilegitasuna, lizentziatik harago”.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Mikel Estarronak utziak

Nola baloratzen duzue Tas-Tas frekuentzia lizentzien banaketatik kanpo utzi izana?

Balorazio Mahaiak hautatu dituen irratiei jakinarazi egin die aukeratuak izan direla, behar den dokumentazioa prestatu dezaten, eta gero Gobernu Kontseiluak onartu behar du frekuentzien esleipena. Beraz, oraindik erabakia ez da ofiziala, baina behin betikotzat eman daiteke eta kanpoan geratu garela garbi daukagu, ez baitigute ezer komunikatu. Balorazioa ezkorra da, dialean egoteko eskubidea irabazia daukagula uste dugulako, diala espazio publikoa eta mugatua izanik ahalik eta pluraltasun eta aniztasun handienarekin banatu behar delako, formatu, gestio eta eredutan, baina ez da hala egin: alegia, hiru sektore nagusi daude, publikoa, zeinak baduen bere espazioa eta ez den lehiaketara aurkeztu; komertziala, zeinari orain arteko lehiaketetan banatu diren lizentzien %100a eman zaion; eta komu-

nitarioa, lizentzien %0arekin. Beraz, logikoena izango litzateke dialean ez dagoena lehenestea lehiaketa honetan, irrati komunitarioak garenak, eta tokikoak, baina ez da kontuan hartu ez komunitario izatea, ez tokikoa izatea.

Hain zuzen, egoitza nagusia Madrilén duten irrati-kateek lortu dute lizentzia gehien (SER kateak adibidez), irrati elebidunen kasuan.

Bai, betiko eskemari heldu diote, zegoen eredu bultzatzen jarraitzen dute: gaztelaniaz eta Madriletik egiten diren irrati-kate komertzialek dute gaur egun lizentzien %85-90. Errealitate sozialarekin eta herri honek dituen beharrekin zerikusirik ez duen irrati-mapari eusten dio azken erabakiak.

Lizentzien banaketa honek zenbaterainoko eragina du? Datozen urteetarako irrati-mapa finkatu du ala atzera bueltarik izan dezake?

“Dialean ez dagoena lehenestea litzateke logikoena, irrati komunitarioak eta tokikoak garenak, baina lehiaketak ez du kontuan hartu ez komunitario izatea, ez tokikoa izatea”

Tira, gauzak betiko direla esatea asko esatea da, baina frekuentziak gobernu legal batek banatzen baditu, hasiera batean behintzat horrek ez luke atzera martxarik, salbu eta helegiteak aurkezten badira egoera aldatzeko, adibidez lehiaketa baliogabetzeko. Aukera hori ez da baztertu behar, gauden egoeran helegiteak Jauraritza berriak ebartziko lituzkeelako, eta Jauraritza berria agian ez dago ados lizentziak banatzeko jarraitu den prozesuarekin. Baina baliorik gabe uzten ez bada, ondorengo urteetarako panorama definituko luke, hamabost urterako epearekin banatzen dira lizentziak –automatikoki luza daitezkeenak, kontrakorik ezean– eta ez dago aurreikusita frekuentzia planifikazio berririk. Bestalde, hauteskunde ataritan jardunean ari den gobernuak ez dakit zein neurritan izan dezakeen zilegitasuna horrelako erabakia hartzeko. Legalki beharbada izango du gaitasuna, baina etikoki ez da egokia 2006an abiatu zen lehiaketa hau korrika eta presaka ebaztea eta bortxatzea, agintea galdu behar dutelako.



EAEn dauden irrati lizentzien %80-90 gaztelaniaz bada, lizentzien banaketak hori orekatzera jo behar zuela nabarmendu du Estarronak, euskara hutsezko irratientzat lizentzia gehiago eskainiz.

kopuruaren arabera hartu du erabakia, eta adibidez, Beasainen frekuentzia lizentzia bakarra zegoenez, ez da gorde lizentziarik euskara hutsezko irratientzat, zonaldean nagusiki euskaraz hitz egiten den arren.

Irrati elebidunen kasuan, apenas hartu den aintzat euskaraz egitea.

Hala da, gehienez 200 puntutik 10 lor zitezkeen arlo honetan eta guk 10ak ditugu, gure proiektua %60 euskaraz delako eta %40 gaztelaniaz. Baina euskara gutxi baloratzeaz gain, handia da dekretuak agerian uzten duen desproporzioa: hots, Madriletik egiten den irratiaketeak, kasik nahikoa du tokiko deskonexioetan “egun on” eta “agur” esan eta gainerakoa gaztelaniaz emititzearekin, gutxieneko eskakizuna betetzeko, programazioaren %5 euskaraz izatea. Horrekin jada, 5 puntu lortzen ditu irratia, eta euskaraz %90 egiten duenak berriz, 10 puntu. Kanpoko irratia saritzen ditu neurri honek. Beste horrenbeste programazioarekin: tokiko programazioa izatea oso gutxi baloratu

da eta ondorioz arlo horretan ere apenas dagoen alderik bertako informazioaz ari den bertako irratia- ren eta kanpokoaren artean.

Irrati komunitarioa izateak ere ez du puntuatu. Zergatik hartu beharko litzateke kontuan?

Hasteko, komunikazioan hiru sektore baldin badaude, publikoa, komertziala eta komunitarioa, nazioartean aintzat hartuak, hirurek lekua izan beharko lukete. Baina gainera, irratia duen zerbitzu eta funtzio publikoaz ari bagara, irrati komertzialen helburu nagusia negozioa egitea da, errentagarritasuna; irrati publikoen xedea bai izan beharko luke zerbitzu publikoa, baina ikusten dugu une bakoitzean boterean dagoenaren interesen menpe daudela; eta hortaz, misio hori bete dezakeen sektorea komunitarioa da: ez du irabazi asmorik eta herritarren parte-hartze askea

Horrez gain, ez da aintzat hartu Kultura Sailak berak eskatuta joan den otsailean egindako txosten juridikoa, dekretuak juridikoki akats eta hutsune ugari zituela azaleratzen zuena.

Hala da, dena korrika eta presaka egin da eta zer pentsatua ematen du. Aurreko gobernuak 2006an atera zituen frekuentziak lehiaketara, dekretua prestatzeari ekin zion baina ez zuen denborarik izan, gobernu honek ez du ezer egin bukaera arte, iaz dekretu proposamena aurkeztu eta onartu, eta aurten deitu dute lehiaketara, proiektuak aurkezteko hila- beteko epea emanez. Eta orain, dena ebatzi nahi da. Oso azkar joan da guztia, ez dutelako utzi nahi erabakia hurrengo gobernuaren esku. Areago, diozun gisan, entzungor egin diote Eusko Jaurlaritzaren beraren zerbitzu juridikoek prestatu- tako txostenari, txostenaren arabera oinarriak gaizki daudelako eta aurrera ez jarraitzeko aholkatzen duelako.

Arrosa irrati libreen sareko hainbat hedabidek lizentzia banaketan dekretuko irizpideak kritika- tu dituzue. Lehenik, euskara hutsezko irra- tientzat lizentzia gutxi banatu direla salatu- duzue (34 frekuentziatik 11).

“Ezarritako berme ekonomiko basatien erruz, irrati txiki askok ezin izan dute beren burua aurkeztu eta proiektu ugari kanpoan geratu dira”

sustatzen du, komunikazioa eskubide unibertsala delako eta herritarra ez delako hartzaile edo kontsumitzaile hutsa. Kontrara, horrelako erabakiekin dila pribatizatzen ari dira, espazio publikoan herritarren parte-hartzea ukatzen.

Horrez gain, irratiaeren esperientzia, zonalde jakin batean urtetan egindako lana ez du baloratu dekretuak.

Aurkeztutako proiektu guztiak zerotik aurkeztu ditugu, baina denetik dago, batzuek 20 urte daramatzagu, beste batzuek 10, 30... eta badira azken orduan gaizki eta presaka iritsi direnak, dialari inongo aniztasunik eta ekarpen aberatsik egin gabe.

Kexatu zarete berme ekonomiko handiak eskatu dituztela epe motzean, baliabide gehiago dituzten korporazio handien mesedetan.

Adibide batekin azalduko dizut: Bilbon sei frekuentzia banatu dituzte, 8.000 watioko bi eta 4.000

watioko lau; irratia batek 4.000kora aurkeztu nahi badu, logikoa litzateke proiektu bat aurkeztea lau frekuentzia horietakoren bat eskuratzeko, baina ez, frekuentzia bakoitzarentzat proiektu bana (proiektu bera) aurkeztera derriortu gaituzte eta hortaz, diru asko jarri behar izan dugu. Guk hamar frekuentzietarako aurkeztu genuen gure burua, Bilboko seiak eta Getxoko lau, eta horrek 64.000 euroko bermea eskatu digu. Guretzat ikaragarria da hori, urteko aurrekontua ia, baina SER bezalako kate batentzat huskeria da. Berme ekonomiko basati horien erruz, irratia txiki askok ezin izan dute beren burua aurkeztu eta proiektu ugari kanpoan geratu dira. Guk jendearen babesari esker lortu dugu dirua, deialdia egin genuen jendea dirua uzteko eskatuz eta erantzun itzela izan dugu. Izugarria izan da ikustea jendeak gudan konfiantza duela eta krisi garaioan dirua uzteko prest dagoela. Hori irabazi dugu, gizarteak irratia hau nahi duela ikusteak ematen digulako

“Dila saturatuta dago eta azkenean indartsuenak ahulena zapalduko du, potentzia handiagoko frekuentziak erabiliz adibidez”

aurrera jarraitzeko indarra eta zilegitasuna, lizentziatik harago.

Dialaren egungo panoramaren aurrean, zein da soluzioa?

Herriak dituen komunikazio beharretan oinarritutako azterketa egin beharko litzaioke dialari. Ikus-entzunezko Komunikazioaren Euskal Legea botatzen dugu faltan, orain arte dekretua baino ez delako egin eta lege batek herritarren parte-hartzea eta eztabaida ekar lezake, gutxienez legebiltzarreko alderdi politikoa, dekretua zuzenean gobernuak berak onartzen baitu.

Eta hemendik aurrera zer? Helegitea aurkeztuko duzue? Lizentziarik gabe lanean jarraitzeagatik ondorio legalak jasan ditzakezue?

Guk, ziurrenik, eta behin betiko erabakiak ikusten ditugunean, aztertzen dugunean zergatik aukeratu dituzten batzuk eta zergatik ez bestetzuok, helegitea aurkeztuko dugu.

Argi daukagu ez garela konformatuko eta ahal dugun guztia egingo dugula egokia ikusten ez dugun lehiaketa hori bertan behera uzteko. Bestalde, lizentziarik gabe emititzea arau-hauste administratiboa da eta Damoklesen ezpata izango dugu gainean, baina orain arte ez bada dila erregularizatu, ez dut uste orain egingo denik, are gutxiago gobernu aldaketa dagoenean. Nire ustez, dila bere kabuz erregularizatu dadin utziko dute, eta hori arazoa da, oihanaren lege bilakatuko baita: indartsuenak biziraungo du eta ahulena desagertu egingo da. Denak ez gara sartzen, Bilboaldean esaterako saturatuta dago dila, batzuek besteak oztopatzen dituzte, eta azkenean indartsuenak ahulena zapalduko du, potentzia handiagoko frekuentzia jarritz adibidez.

Baliabide ekonomiko handirik ez, baina beste indargune batzuk ditugula erakutsi beharko dugu txikiok, babes soziala esaterako. ■



DONIBANE GARAZI
Urriaren 27an

Vauban Zinemari
17:00etan

Odei Barroso
Sustrai Colina
+ sailkatutakoak

finalaurrekoa 2
argia





DANI BLANCO

**Mikel
Zurbano**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Austeritatearen porrotetik zor ilegítimoaren kitapenera

BISTAKOA DA 2010eko maiatzeko troikaren estrategiaren porrota. Honen helburuak –zorraren eta defizit publikoaren kontrola– ez dira betetzen ari, eta aldiz, Europako ekonomien geldialdia eta langabezia bizkortu egin ditu. Txokeko terapia gogorrak, Europako hegoaldeko herrialdeen barne-doikuntzak, prezioen moteltzea ekarriko omen zuen eta horrekin produktibitatearen igoera, eta beraz, lehiarako baldintza hobeak. Bi urte eta erdi beranduago troika-kidea den Nazioarteko Diru-Funtsak (NDF) berak onartu du uste horren ustela. Izan ere, erakunde horrek egiaztatu du kontsolidazio fiskala deritzon estrategia honekin gastu publikotik kendu den euro bakoitzak BPGaren 1,7 euroko jaitsiera ekarri duela. Harrigarria bezain argigarria NDFak doikuntza-neurriak arazoaren parte direla aitortu izana.

Espainiako Estatuaren gastu finantzarioaren zatia gero eta pisu handiagoa hartzen ari da aurrekontuaren egituraren eta horrela lerro sozialen zenbateko absolutua zein erlatiboa gutxituz doa era nabarmenean

Horrenbestez, Espainiako Estatuaren 2013rako aurreikuspenak ere aldatu ditu Fondoak, BPGaren %1,3ko jaitsiera egongo dela dio orain, duela sei hilabete estimatutakoaren bikoitza. Estimazioa izanagatik ere datu horrek datozen urtetako defizit publikoaren betekizuna ezinezkoa egiten du. Berehalako ondorioak ditu atzeraldia sakontzearen iragarpen honek. Batez ere, zor publikoaren metaketak datozen urtetan ere jarraitu egingo duela eta honek doikuntzarako bidean sakontzera behartuko du Madrilgo Gobernua, gurpil zoroan areago murgilduta. Montorok aurkeztutako 2013ko ezinezko aurrekontuetan zorraren interesen ordainketarako 35 mila milioi euro aurreikusten dira, aurrekontuaren %12 alegia. Estatuaren gastu finantzarioaren zatia gero eta pisu handiagoa hartzen ari da aurrekontuaren egituraren eta horrela lerro sozialen zenbateko absolutua zein

erlatiboa gutxituz doa era nabarmenean. Zor publikoak azken bost urtetan izandako gorakadak mahai gainean jartzen du arazo honi lehenbailehen aurre egiteko beharra. Are bizkorrago, EBZaren interbentzio lotsatia arrisku-sariaren maila garaia apaltzeko gauza ez denean.

Espainiako Estatuako zor publikoa bizkor handitu da azkenaldian. EBko apalenetakoa zen 2007an (BPGaren %36) eta gaur produkzioaren %76 da. Zor publikoa edo subiranoa bikoitzu izanaren arrazoiak atzeraldi ekonomikoa eta zor pribatutik arlo publikora emandako transferentzia erraldoia dira. Madrilgo azken bi gobernuek bankuak erortzen ez uzteko estrategiak arlo publikotik pribaturako izugarritzko diru-transferentziak eragin ditu. Estimazio batzuk 350 eta 420 mila milioi euro arteko zifrak aipatzen dituzte Espainiako banketxeek azken bost urtetan diru-laguntza, abal, mailegu bigun edo sari bezala jasotakoa zenbatzean. Ez dira guztiz bateragarriak kontaketa-metodoaren ikuspegitik baina esanguratsua da zenbateko hori BPGarekiko zor publikoaren azken bost urtetako igoeraren parekoa izatea (%40 alegia). Hauxe da zalantzarik gabe Estatuako zor publikoaren igoeraren arrazoi nagusia.

MEDE fondoaren erreskate berri baten atarian gauden honetan, dagoeneko zulo beltz finantzarioa bihurtu den zorraren ordainketaren zama itzulezina egingo du laguntza berriak. 1980ko Hego Amerikako zorraren arazoaren antzeko egoera bizi dugu Europako hegoaldean egun. Han hamarkada galdu baten ondoren zorren kitapenerako zenbait plan (Brady, Baker...) bideratu ziren. Ez ziren bidezkoak eta egokiak izan. Baina zorraren krisiaren irteerarako zorraren zati nagusiaren parte baten kitapena ezinbestekotzat aitortu zuten. European ere hala gertatuko da denboraren poderioz, haatik auzia epean datza. Zenbat eta beranduago sartu kitapenaren gaia Estatuaren eta EBren adendan, Europako gizarte-disparekotasun handienak dituen Espainiako Estatuako larritasun sozialak orduan eta gehiago okertuko dira. ■






ESPAINIARRRETAN NORK
AGINTZEN DUEN... ?

Lehen, ZP_k omen...

ORAIN, S&P_k SEGUR DA !



Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Zer egingen du Parisek?

HAUXE, denen ahotan dagoen galdera: zein izanen da Frantziako Estatuko erantzuna Iparraldeko jendarte sektore desberdinek eta tendentzi guztietako hautesiek indar biziz plazaratzen duten Lurralde Elkargorene eskaerari? Pasa den urriaren 11n deszentralizazioaz arduratzen den Lebranchu ministroak Euskal Herriko delegazioa errezibitu zuen, baina afera ez zuen argitu.

Iparraldearendako instituzio baten sortzea objektiboki errazago da gaur egun, batere segurtatua ez bada ere. Jendarteko eragile askoren jarrera segituz, hautetsien artean ere aldeko iritzia azkarki zabaldu da azken hilabeteetako gogoetak aitzinatu arau. Orain arteko dispositiboak gaindituak dira gehienek ustetan, eta frantses legedian tresna juridiko egokiak badira, zerbait berezia asmatu gabe. Aieteko Konferentziak ireki aro berriak desagerrarazi du borroka armatuaren aspaldiko aitzakia.

Panorama horri gehitzen badiogu gobernamenduaren deszentralizazio asmoa, ez da dudarik 1981etik hona koiunturarik hoberena bizitzen ari garela. Baina aski ote da zerbaiten lortzeko? Krisi ekonomikoak sortzen dituen desafioen ondoan bigarren mailan gelditzen da auzia. Ipar Euskal Herriak pisu gutti du Paristik ikusita eta gainera frantses goi-kargudun batentzat kudeatzeko zaila den dimentsio geopolitikoa badu, Korsikan

edota Bretainian ez dagoena. Iparralde instituzio baten bidez ezagutuz ez ote da prozesua kontrol ezi-nean abiatuko, Frantziar Errepublika zati txiki hori, Euskal Herri osoko zati bilakatuz?

Ikustekoa da ere zein puntutaraino esku hartuko duen Espainako Gobernuak. Urteetan Madrilek Frantzia presionatu du Iparralde ez dezan ezagutu, terrorismoari amore ematea izanen zelakoan. Gaur

egun bide beretik doala dirudi. Euskal delegazioa ministroaren bulegotik atera bezain laster, Madrilek bere kezka jakinarazi dizkio Frantziako Barne Ministerioari, EITBko erreportajearen arabera, Lebranchuk delegazioari Lurralde Elkargoa hitzeman omen ziolako.

Denbora berean, buruzagi sozialistek errepikatzen dute frantses antolamendua malguago bilakatu nahi dutela eta lurraldez lurralde egokipen instituzionalak egiten ahalko direla.

Are gehiago, Alsaziako instituzio guziak batzea onartu du Frantziako Gobernuak eta ez ditu baztertzen Korsikako eboluzio instituzionalak edota Bretainiako lurralde historikoak berbatzeko aukera.

Ipar Euskal Herria erantzunik gabe geldituko den lurralde bakarra izanen ote da? Eta bere herritarrak euskaldun izateagatik berriz ere mespretxatuak? ■



Euskal delegazioa ministroaren bulegotik atera bezain laster, Madrilek bere kezka jakinarazi dizkio Frantziako Barne Ministerioari

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Nebraskak 30 urte

BADU BERAZ hiru hamarkada Bruce Springsteenek *Nebraska* albuma entzuten dugula ekialdetik sortaldera iparralde gauez zeharkatzean! 1982an atera zen Ronald Reagan amerikar lehendakariak Milton Friedman bere adiskidearen Naomi Kleinek aztertuko zuen *shock doctrine* hura martxan jartzen hasi zenean, urteak joan ahala dakizkigun ondorio likitsek, jendaldeak are pobreagotzeko baliatzen den krisia ekonomikoa ardatz. *The Boss* erraldoiak orduan marrazten zituen pertsonaiak beranduago Tom Joad-en inguma CDan berraurkituko genituen, biluzik, esku hutsik, subprimen arazoen karietara guztia

galdurik, kotxea, etxea, segurantzak, pentsioak. Uholdeak eraman zituen.

Ez dakit, gatzaro alderraia gogoratzen edo oraindik atzo bailitzan aditzen dudalako, *Nebraskako* abestiek begia bustitze-raino ukitzen naute: neoliberalismoa desastre kolektiboa izan zen Atlantic Cityko Casinoan dirua jostatzera eta bere gorputza saltzen bukatuko zuenarentzat. Bizitza puska bedera beltza da, etorkizunik gabea, baina diskoko azken melodia lanzinanteak dioenez altxatzen den azkorri bakoitzean *people find some reasons to believe...* ■





Mikel Alvarez

♦ AHTREN AURKAKO
MUGIMENDUKO KIDEA

AHTren zuloa eta zorrak

ESPAINIAKO GOBERNUAK AHTren obran murrizketak iragarri eta berehala oihuka jarri dira gure herriko politikari autonomiko guztiak, azpiegitura amorratuari jarritako galgekin aztoraturik, itxuraz eraikuntza lanek abiadura galdu eta amaiera epeak luzatu daitezkeelako.

“Zulo” horretara diru gehiago ez botatzeko eskatu dugu ordea, behin eta berriz, AHTren aurkariok. Izan ere, Euskal Y-aren lanetan, kasu, eragindako kalteak handiak izateaz gain, inbertsio osoaren %70 gutxienez egitea falta zaie oraindik.

Azken albisteek AHTren garapenean nola eragingo duten ikusteko dago. Batetik, bistakoa da kostu ekonomikoa jasangaitza dela: gobernu espainiarrak AHTren eraikuntzan 82.000 milioiko gastuak egin ditu jadanik, eta Europa osoan dauden Abiadura Handiko trenbide guztien %44 penintsulan metatzen da, Kataluniako ERCK egindako azterketa baten arabera. Egoera ekonomikoak okerrera egin ahala, ez dirudi xahuketa maila horri eutsiko dionik.

Baina egin kontu, zorraren kontua inoiz baino ozenago salatu beharko dugu eta. ADI-Feko langileak esaterako txundituta omen daude AHTrekin enpresa nolako zorretan murgiltzen ari den: “Estatu osoan AHTk eraikitzearen sekulako maileguak eskatzen ari da. Ez dago obra bat ere gelditzeko

asmorik”, diote. Horren lekuko, Europako Inbertsio Bankuak 1.000 milioi euroko mailegua utzi dio aurten Euskal Y-aren obrak egiteko. Eta hau gutxi balitz, Sustapen Ministerioak berriki onartu duen 2024 arteko Azpiegitura Planean aurreikusitako AHTren korridore guztien eraikuntzak, datozen 12 urteetan 225.000 milioi euroko gastua eskatuko luke.

Ildo beretik, azken egunotan Urkullu eta Barcina bat etorri dira AHTren obrak azkartzeko diru gehiago jarriko dutela. Barcinak aitortu du, hala ere, Nafarroako Gobernuak oraingoz AHTra bideratu dituen 134 milioi euroak aurreratzeeko eskatu behar izan duen mailegua sekulako zama izaten ari dela nafar ogasunarentzat. Bitartean, Gipuzkoan AHT eraikitze 2.500 milioi eurotik gorako esleipenak egin dituen PSOE-PSEren gobernu autonomikoa erabat isilik dago, horrek datozen urteetan Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan nolako eragina izango duen, artean ezagutu gabe.

Bukatzeko, urriaren 27an Baionan AHTren aurka manifestatzeko deitu duten Iparraldeko elkarteek esan bezala, finantzaketa arazoek AHTren obra gibelatzen ahal dute, baina gure mobilizazioak bakarrik geldiaraziko du egitasmo suntsigarri eta behargabeko hau. Ez dezagun gure geroa txikitzaileen eskuetan utzi! ■



BERTSO BERRIAK

Talibanak



XDZ

**Beñat
Gaztelumendi
Arandia**



Doinua: Aita izena.

Izan Gobernu, izan Kongresu,
Udal zein Foru Aldundi
baldin botere gunea bada
gizartearen irudi
gure mintzoak nor ipintzen du
prentsaurrekotan urduri?
Hizkuntzak berez omen ditugu
pertsonen arteko zubi
baina gurea amildegi bat
bihurtu dela dirudi.


Hitz ematetik hitz egitera
galtzen den konpromezuak
ageriago utzi ohi ditu
gugan dauden konplexuak
inkestek sortu arren etsipen,
kezka, min eta kexuak
belaunalditan iraungo badu
gure arbasoen suak
euskaraz izan beharko dute
edukiak zein mezuak.

Nahiz talibanak edo naziak
esaka ari zaizkigun
hemen euskaraz dakigun denok
garelako elebidun
gure harrizko herria hain da
burugogor, mingain-bigun...
Euskara gugan dagoelako
ez PPn eta ez Bildun
ea hurrengo Lehendakariak
nola hitz egiten digun. ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Urguilu heteroa

“ETA ZURI, gustatzen al zaizkizu mutilak?”. Ezin uka galderaren zuzenak harritu ninduenik. Nire artean pentsatu nuen atzerrian nengoela eta han akaso halako galderak egitea naturalagoztat joko zela. Galderari itzuri egiteak, bestetik, “maritxutasunaren mamua” handiagotzea besterik ez zukeen ekarriko, eta hala, erantzun progaren bidea hartu nuen: “Ez naute mutilek sekula erakarri izan, baina ez dut baztertzen akaso etorkizunean halakorik gertatzea. Zergatik ez?”. Nire lagun gay eta lesbianeak buruz iruzkinen bat egitea besterik ez zitzaidan falta izan. Horren ordez arropu egin nion, karga arintze aldera-edo. “Eta zuri, zuri gustatzen al zaizkizu neskak?”. Nirea baino erantzun zuzenagoa izan zen berea, “Ez, ez zaizkit gustatzen”. Gero gaineratu zuten txunditu ninduen gehien ordea: “Lehenengo musua neska batekin eman nuen, izan nuen neska-lagun bat, baina ez, ez zaizkit gustatzen. Konturatu nintzen ez zitzaizkidala gustatzen, ohean-eta desastre hutsa izaten zen”.

Euskal Herrian halako solasaldi bat edukitzeko aukeren (ia) ezinezkotasunaz hausnarrean ibili naiz denbora batez. Izan ere, nirearen, gurearen aldean, ene solaskidearen heterosexualitatea askoz ere laxoagoa, askoz ere zentzudunagoa zela ohartu nintzen berehala. Ez zuen nik bezala urgentziazko erantzun *politically correct*ik behar haren naturaltasun sexuala agerian uzteko.

Heteronormatibitatearen malurak askotarikoak baitira, izan ere. Esan gabe doa, haren lehenengo biktimak, biktima nagusiak, lesbiana, gayak eta emakumeak dira, baina

gizon heterosexualok ere dastatzen dugu, sarri dastatu ere, haren ozpinetik. Adibideak askotarikoak dira. “Gizon ehiztaria”ren (a. k. a. babosoa, lerdetsua, lerdoo) estandarrean kabitzen ez diren gizonak zenbat alditan ez ote ditugu gizon bigun, gizon eskas, gizon maskalaren etiketaren bortitzez azpiratu? Ohean ez

bazara aski bipil, aski ar, ez baduzu zakila aski lodi, hor izango duzu berriz ere “maritxutasunaren mamua” zure inguruan hegaka.

Halako batean zure ohe-kideak beroaren beroan “jostailutxo bat” ateratzen badu zure zakilari begiratu diozu: “Zer egin dut gaizki?”, mundua zure zakilaren bueltan mugitu beharko balitz bezala. Ez baduzu zure “konkisten” gainean aski publizitate egiten, ez zaizu faltako lagun begiluzerik galdezka heteroen esparrua ongi zedarritu eta urguilu heteroa ongi mantendu aldera. Mutil batek uko egiten badio herriak, koadrilak neska ikusgarritzat, neska ukalezintzat, duenari luze gabe erantzun beharko du: “Ez haiz gaya izango?”. Jakina, galdera berez, beste hainbat bezala, neutrotzat jo lezake inork, inozotzat, baina testuinguru horretan ezagun da ez duela inozotik deus, homofobia dela bete-betean. Zer esanik ez, zure neska ohi bat orain lesbiana “bihurtu” dela kontatzen badizute. Halakoa baino laido handiagorik! Maskulinitasunari berari eginiko traiziotzat hartuko du lerro, lerdetsu batek baino gehiagok.

Ongi egingo genuke ulertuko bagenu heteronormatibitatea gizarte-instituzioa den heinean denok hartzen dugula parte, gutxi-asko, haren sustapenean. Egongo da esango duenik heterosexualitatea bera dela eraitsi beharrekoa, eta endemas, erlazio binario oro dela lurperatu behar. Baliteke. Anartean, uste dut ez litzatekeela soberan egongo heterosexualitatea bizitzeko beste forma batzuk bilatu, praktikatu, zabalduko bagenu. Hasieran aipatzen nuen heterosexualitate laxo, soseguzkoago bat-edo. Bizi askeago baten alde, bizi bizigarrirago baten mesedetan. ■



Antton Olariaga



ALBERTO LADRON ARANA

«Ez dut ezer orijinalik esan nahi, ahalik eta kalitate handieneko zer edo zer entretenigarria, baizik»

Piztiaren Begiak, Alberto Ladron Aranaren azken thrillerra kolean da. Giro frenetikoa, nortasun nahasteak eta mozerro festa ez dira falta eleberrian. Suspensearen hariak mugitzen badakiela erakutsi du beste behin Iruñeko egileak, bere lanik onena kontsideratzen duen obra honetan.

| IRATXE ESNAOLA |

Argazkiak: Dani Blanco

HIRU AHOTS narratibo hiru gizonen barrunbeak erakusten. Xabier Betelu ETA kide ohia, kartzelatik atera berri, hilobi bat profanatzen ari da. Dasilva enpresariak, Iruñeko Brigada Antiterroristan aritua, sekretu zaha-

rrak ate joka ditu. Jonek, familia istripu latz batean galdu zuen langabetuak, eskutitz bitxi bat jaso du. Osagai nagusiokin osatu du egileak bere seigarren eleberria, *Xake Mate* (2002), *Eguzki beltzaren sekretua* (2004), *Aro-*





tzaren eskuak (2006), *Abaztuen mendekua* (2009) eta *Zer barkaturik ez* (2011) lanen ostean. Albert Olvera.com webgunean egileak booktrailer bat apailatu du eleberria promozionatzeko eta irakurleak erakartzeko. Gu erakarri gaitu Nafarroako Unibertsitate Publikoraino, trama garatzen den Iruñea bertaraino. Bere konpainiaren xarmapean ikastetxeko iraganbideak, bat-batean, thriller berri baterako eszena egokiak otutzen zaizkigu.

Pertsonaietako bat ETA kide ohia da, eta bestea, Iruñeko Brigada Antiterroristan aritua. Irakurketa politikotik eutsi ohi zaie usu bi gai. Zuk thrillerreka ekarri dituzu...

Eleberri beltzak idazten dituztenek euren liburuak baliatzen dituzte tokiko gatazkez hitz egiteko. Irlandan IRA hartuko dute aipagai, Amerikako Estatu Batuetan, aldiz, beltzen bazterkeria. Pil-pilean dauden gaiek pro-

«Nire lanekin kritiko agertu ohi naiz argitaratu eta zenbait hilabetera berrirakurtzean. Baina oraingoarekin, oraingo, pozik nago».

tagonismoa hartzen dute, beraz. Borroka armatuarekin loturiko argumentua egin nahi nuen nik. Egoerak errazten du gaiak jardutea, eta bakoitzak bere bertsioa eman nahi duen garaiotan, nik neurea eskaini nahi izan dut, nahiz nobelan lerro artean doan, eta ez nabarmen.

Iraganaren ezagupenak eta berrirakurketak berebiziko garrantzia du zure lanetan.

Halaxe da. Orain arte iragan urrutikoa baliatu izan dut, zela Gerra Zibila, zela Bigarren Mundu Gerra. Oraingoan, baina, gure garaian dago girotua drama nagusia eta hamaika urte besterik ez dut egin atzera, iraganeko istorioaren bila. Hurbiltasun honek aukera eman dit iraganetik orainera datorrenari arreta zerk pizten dion erakusteko. Esate batera, Xabierrek hainbat urte espetxean eman ditu. Bada, niri, Iruñera itzultzean nolako hiria aurkitzen zuen islatzea interesatzen zitzaidan.

Securcom enpresa da Dasilvaren lantokia. Stieg Larssonen trilogia ezagunean Lisbeth Salanderrek lantokitizat duen segurtasun enpresa gogorarazi dit.

Egia esan, Larsson ez dut bereziki atsegin, Eskandinabiako eleberrien oso zalea naizen arren. Henning Mankell eta bere Wallander inspektorea gustuko ditut. Estatu

Batueta eleberri beltza, berriz, nahiko arrotza zait. Oso bortitza da, denek armak baitaramatzate gauza normala balitz bezala. Europako eleberrietan bada indarkeria, noski, baina ez hain muturrekoa, eta gainera, deskribatzen dituzten gizarte giroak hurbilagokoak zaizkit. Beraz, bai, ziurrenik horren denaren isla nabariko da nire eleberrietan.

Amaiera harrigarriak izan ohi dira zureak. Pauso pauso zaintzen dituzu detaileak eta suspensea mantendu. Plan jakin batetik abiatzen zara. Ez zara aspertzen gero bidean?

Nobelaren puntu nagusiak alde aurretik pentsatuak izaten ditut, baina idatzi ahala eta ideiak bururatu ahala, argumentua aldatu behar izaten da, askotan. Kasu honetan nahiko goiz bururatu zitzaidan amaierako aldaketak eta argumentua harantz bideratu ahal izan nuen.

Ondo bideratu ere. Xabierrek amaieran ematen digun ezustea ez da nolanahikoa...

Irakurleak ez du ikusten irakurtzen ari dena, zineman gertatzen denaren kontra, eta hortxe dago koska. Tranparik ez diot egin irakurleari. Engainatu bai, baina gezurrik esan gabe. Karta guztiak mahai gainean dauzkazu, nahiz partida osoa ulertzeko modurik ez izan.

Goazen zure hastapenetara. Euskaraz ikasten eta idazten hasi zinenean ohartu zinen euskaraz apenas zela zientzia fikzio-rik, fantasiarik, thrillerrik. Aspertu egiten zinen.

Jende askori gertatu zitzaion 1980 eta 1990eko hamarkadetan. Bai euskal literatura eta bai garaiko itzulpenek asperitzen ninduten. Ez zen nobela beltzik euskaraz, ez fantasiarako narratiborik, bertako idazleak beste tradizio batetik zetozelako, edo. Hasieran, gogoz kontra irakurtzen nuen euskal literatura, euskara ikasteko eta ondo idatzi ahal izateko, eta ez irakurtzearen plazer hutsez.

“Borroka armatuarekin loturiko argumentua egin nahi nuen. Egoerak errazten du gaiaz jardutea, eta bakoitzak bere bertsioa eman nahi duen garaiotan, nik neurea eskaini nahi izan dut”

Badakit ez duzula hutsunerik bete nahi euskal literaturan, baina zure liburuen salmentek zerbait betetzen duzula diote.

Irakurle askok esan izan dit: “Bazen ordua halako zerbait azal zedin!”. Orain ari dira

«Irakurleak ez du ikusten irakurtzen ari dena, zineman gertatzen denaren kontra, eta hortxe dago koska».

argitaratzen beste nobela beltz batzuk eta ziur naiz aurrerantzean gehiago izango direla. Mota honetako liburuek beste hizkuntzetan zer harrera duten ikusi besterik ez dago. Euskarara normalizatu ahala, euskal literatura ere normalduko da.

Adi zerrendari: mendeku-gosea, zelata, xantaia, tortura, gezurrak, erailketak, hildakoak. Alderdi ilunik gabe eleberririk beltzik idatz daiteke?

Nik baino ahalmen handiagoa dutenek, beharbada, egin ahaliko dute! Ni oso klasikoa naiz, ordea. Ez dut ezer orijinalik egin nahi, ahalik eta kalitate handiena izango duen zer edo zer entretenigarria, baizik. Ez naiz jenioa. Liburu onak egitea dut xede, ez besterik.

Eta ona atera al da azken hau?

Nire eleberririk onena iruditzen zait eta irakurleen mezuak ere positiboak izan dira. Pentsa, iraileko liburu salduena izan da!

Nire lanekin kritiko agertu ohi naiz argitaratu eta zenbait hilabetera berrirakurtzean. Baina orain-goarekin, oraingo, pozik nago. ■



Bilbo

Liburu azoka urriaren 26tik azaroaren 11ra, Arenalean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

RIP-EKO KARLOS ETA PORTURI OMENALDIA

Belaunaldiak batzen dituen kontzertua

Tamalez, ugariak dira 80ko hamarkadako eztandan muturreko bizipenen ondorioz bidean gelditu direnak. Belaunaldi oso batek diktaduraren beltzetatik nolabaiteko askatasunera egin zuen salto bat-batean eta olatu horrek uretatik kanpo utzi zituen horietako asko. Tartean, musika zaletu asko.

| IKER BARANDIARAN |

RIP TALDEA erreferente izan zen eta da Euskal Herrian, baita Espainiako Estatuan ere, punkari bideak zabaldu, kanta gordin bezain egiazkoak idatzi eta ibilbide sinesgarria izan zuelako. Taldearen disko uzta urria bada ere, oraindik ere haien kantuak iraungitze datarik ez duten kale-eresiak dira.

Taldeak 80ko hamarkadan izan zuen sasoi emankorrena, baina gerora 90ko hamarkadan eta bigarren milurtekoan ere elkartasun ekimenak babestu eta zale gazteagoak asetzeko agertokietara igo ziren. Aurretik, 1997an, baxu-jotzaile eta konposatzaile nagusia zen Eduardo Mancebo *Portu* hil zen, baina haren anaia Xabik ordezkatu zuen zuzenekoetan. 2003an, ordea, Karlos Agirreurreta *Mahoma* abeslaria hil zenean, taldeak betirako esan zuen agur.

Ezin da ukatu RIP taldeak izan duen garrantzia, nahiz eta beraiek ez zuten inoiz halakorik pentsatu eta desiratu. Horren adibide esanguratsua da bigarren milurtekoan itzuli zirenean kontzertuak egiteko jaso zuten eskaintza ugaria —gehienetan ezezkoa ematen zuten— eta taldea zuzenean ikusi nahi zuen jendetza.

Musikaz harago, ordea, haien lagunak omenaldi kutsuko kontzertuak antolatzen hasi ziren, kokagune ezberdinetan beti. Eta orain dela sei urte musikaz bustitako omenaldi-elkarretaratzeak Arrasaten egitea erabaki zuten. Sentimenduak zein musikak erakarrita, hainbat belaunaldik egiten dute bat.

Hala, urriaren 27an RIP taldeko kide ziren Karlosi eta Porturi omenaldia egingo diete lagunek, Arrasateko Gaztetxean. Aurten, gainera, Puñetazo taldeko Mariano Legorburu ere gogoan izango dute, hil berria izaki. Garraxi, Piztu Punk! eta Inershow arituko dira.



Ezkerreko argazkian Eduardo Mancebo *Portu* eta eskuinekoan Karlos Agirreurreta *Mahoma*.

Garraxi Arrasateko talde gaztea da, punkaz gain beste estilo batzuk ere lantzen dituen. RIPen espiritua odolean barneratuta dauka eta bestelako ibilbidea egiten jakin duten gazteek osatu dute. Belaunaldi berrien isla dira.

Piztu Punk! proiektua RIP, Obligaciones eta beste hainbat taldeko kideek osatzen dute. Oso gutxitan egiten ditu kontzertuak eta kantutegian pieza rockero-indartsuak dira nagusi. Euskal Herrian dagoen frontman harroputzenetarikoa du taldeak.

Inershow Kataluniatik dator. 2003an besteak beste L'odi Social, Monstruacion eta LSDn aritutako zenbait veteranok jaialdi errebindikatiboetan kanta ezagunak jotzeko taldea sortzea erabaki zuten. 80ko hamarkadatik hasi eta gaur egunera arteko Euskal Herriko eta Kataluniako 100 abestiko kantutegia dute eta publikoa abestera gonbidatzen dute. ■





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Helduen literatura

Ilusioaren ordaina
Laura Mintegi
Erein, 1983.



Bueno, bai eta ez, badakizu

HONEZKERO jakingo duzue: Laura Mintegi lehendakari da. Azken orduko berririk ezean, Euskal PEN Klubeko lehendakari da Laura Mintegi, Eusko Jaurlaritzako lehendakariyai izateaz gainera. Apenas aipatu da hautes lasterketan sartu zenetik, baina gauza ezaguna da lehendakariyai baino lehen Mintegi idazle genuela. Eta deskuidatzen bazarete lehen lehendakariyai idazlea ere bai –ez, ordea, lehen literaturzalea, Patxi Lopezek ondo baino hobeto erakutsi bezala–. Hemen, beraz, Mintegiren perfil –nahita edo nahi gabe– deskuidatu hori hartuko dugu mintzagai.

Ezen ugari baitira argitaratutakoak, 80ko hamarkadan hasi eta gaur egunera artekoak; ipuin bilduma bat eta bost nobelako korpus literarioa osatzeraino. Nobelak izan dira gerora, baina ipuinak izan ziren aurretik, 1983an. *Ilusioaren ordaina* bildumaren genesisia Ana Urkizaren *Zortzi unibertso, zortzi idazle* liburuan aitortzen digu Mintegik berak: Donostia Hiria sariketara aurkeztu eta irabazi egin zuen. Horri esker, Erein argitaletxeak liburu bat argitaratzeko eskaintza egin zion. Ipuin batzuen zirriborroak zituen eta uda eman zioten zirriborro haiekin liburu atontzeko: “Nik, ausart, baietza eman nien, jakin gabe gai izango ote nintzen liburu egituratzeko eta bukatzeko, eta bai, gai izan nintzen”.

Eta bilduma irekitzen duen *Satorzuloak* ipuinak irabazi zuen aipatutako 83ko Donostia Hiria. Eta

bildumako beste ipuin pare bat ere izan ziren garaian sarituak: *Paris edo* 83ko Santurtziko udala sariarekin; *Ez dadila belu izan* suertatu zen 82ko Kirikino sariko finalista. Eta bildumak azkenerako uzten duen inpresioa da, ez hainbeste sariketa batek ziurtatu beharko lukeen lan literario baten berezitasun, bakartasun, ertzez beteriko borobiltasunarena, baizik eta uda batean apailatua izan den sortarena. Laino, herabe, beharrezko puntxik gabe, bai eta ez, epel xamar uzten zaitu azkenerako.

Gertatu izan da Laura Mintegiren beste lan batekin, *Bai... baina ez* estreinako nobelarekin. Zuzenke eta lan handia egin zela, sintaxia, lexikoa, estiloa, elkarrizketak. Berridatzia eman zela 86koa 99an. Eta ikusten dugu eskuetan dugun *Ilusioaren ordaina* hau ere, 99koa, 83ko haren edizio zuzendu eta eguneratua dela. Baina *Bai... baina ez* harekin gertatzen zenaren kontrara –lehen argitalpenak kritika zorrotzak jaso zituen, edizio berridatziak irakurketa berri eskuzabalagoak–, lehen ipuin bildumaren bigarren edizio honek ez dakit orijinala hobetzen duen, baina ez du emaitza bete-beterik uzten. Edo, beste modu batean esanda, Iñaki Kamino estimatuak agerkari honetantxe 84an jaulki zituen laudorioek ez dutela ia 30 urteko galga gaingiditu. ■

Aritz Galarraga



Xolomozko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Punka eta Oi!-a bizi-bizirik daude

Beste istorio bat
Arkada Social

Mauka.
Iraupena: 23'23".
10 euro.



BITXIA DA Arrasateko Arkada Social taldearen ibilbidea. 1990eko hamarkadan taldea sortu eta kontzertu gutxi batzuk egin ostean desagertu egin zen. Gerora, bere grabazioak zabaldu eta bigarren milurtekoan itzuli zirenean Arrasaten eta inguruetan egindako kontzertuetan izugarritzko jendetza batzen hasi ziren; hori medio, taldeak tarteka zuzenekoak egiten jarraitu zuen eta orain disko luzea grabatu du. Des-Kontrolen ere aritzen den Hodei-

ren ahotsa da bereizgarri handienetakoa, punkaren berezko amorraziozko tonua, sinesgarria du-eta. Bestela, kantutak punk eta Oi!-aren artean kokatzen dira eta Alemaniako punketik ere ederto edaten dute. *Dinero para plomo* kantak ez du ezer falta, borobila da, eta punk melodiko eta Oi! estiloko piezez gain, Vomitoren arrisku puntua duen punka ere aurki daiteke. ■

www.arkadasocial.com

ARKADA SOCIAL, HODEI

«80ko hamarkadako musikak erabat markatu gintuen, eta gaur ere horrexek betetzen gaitu»

Beste istorio bat bezala hartzen duzue itzulera luze honen baitan disko luze bat kaleratu izana?

Bai, diskoaren izena hortik dator. Taldean aldaketak egon direnez, oraingoa Arkadaren beste kapitulu bat dela esan dezakegu. Gogotsu gatoz, baina ez dakigu oraingoa ere ibilbide arrunta hartuko ote dugun, ez gara-eta arruntak...

Zergatik uste duzue gazteen artean punkak eta Oi!-ak halako erakargarritasuna duela?

Gazte asko identifikatuta sentitzen dela uste dut. Orain dela 15 urte ez zegoen horrenbeste talde eta horrek eragina izan duelakoan nago.

Eta zuek ere 80ko hamarkadako punka eta Oi!a errebindikatzeko dituzue. Zer eman dizute estilo horiek? Hamarkada hartako musikak erabat markatu gintuen eta gaur egun ere musika horrek betetzen gaitu.

Betirako. Ideiak, asmoak, lagunak eta jarrera dira benetan balio duten gauza bakarrak?

1997an idatzi genuen kanta hori, eta horiek gauza garrantzitsu bakarrak ez izan arren, ezinbeste-



Hodei ezkerrean, eta Brian, eskuinetik hasita lehena.

koak direla pentsatzen jarraitzen dugu oraindik ere.

Brian, oraingoa bai, utzi dizute gitarra rockeroagoak sartzen. Gainera, orain bi gitarra zarete. Zertan irabazi du taldeak? Estilo eta tententzietara zabalik zaudete?

Brian: Bai, oraingoa gitarren artean beste istorio bat zabaldu nahi izan dugu. Orain bi gitarra-jotzaile ditugulako, taldeak batez ere zuzeneko kontzertuetan irabazi du, eta kantutak askoz beteago gelditzen dira.

Bestalde, beti egon gara estíloe-

tara zabalik. Zenbat eta zabalagoak izan, orduan eta gehiago piztuko diogu arreta jendeari.

Arkada Socialen hitzak beti izango dira kritikoak? Izan al liteke musika talderik mezu zuzenik gabekorik?

Hodei: Bai, hitz askok mezu argia dute, baina kritikoa izan edo ez, jendeak mezua sentitzea da garrantzitsuena. Izan ere, askotan hitzak ez dira kontzertuetatik edo pentsarazteko, dibertitzeko baizik. ■



ARGIAko harpidedunentzat
eskaintza berezia

Tripoli-Kabul

Karlos Zurutuza



Eskuratu dohainik "Tripoli-Kabul" e-liburua

Urteetako txangoa izan da Tripoli eta Kabul artekoa. Bidean, gerrak, goseteak eta injustiziak etxetik kanporatutakoekin egin dut topo. Mugak zeharkatu ohi dituzte, mendebalderantz beti, nire kontrako norabidean. Erraza da Donostiatik Kabulera joatea, Tripolitik igarota bada ere, baina ez alderantziz. Funtsean, gerrak familien etxeetako atea jo eta bota egiten du. Etxe horietako barrukoenak dituzue istorio hauek guztiak.

Aukeran, dosi txikitik irakurtzea gomendatzen dizuet, liburu korala baituzue honakoa, ahots ugarik osaturikoa. Karim, Jewan edo Hamuda dira, besteak beste, Tripoli eta Kabul arteko mugarriak. Haiei guztiei eskaini nahi diet bilduma hau.

Karlos Zurutuza



liburua

12 €

10,80 €
ARGIAko
harpideentzat

*ARGIA eta Gaumin
argitaletxearen eskutik,
"Tripoli-Kabul" e-liburua
dohainik eskainiko zaie
ARGIAko harpidedunei.*

Eskuratu zeurea:

+34 943 371 545

harpide@argia.com

argia



Izua eta algara

BIKAIN moldatzen den bikotea da izuak eta algarak Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean osatzen dutena, eta bereizgarri horri eutsi dio Josemi Beltranek, iaztik jaialdiaren zuzendari —eta Jose Luis Rebordinosen oinordeko—. Aurten ere, urriaren 27tik aurrera, armiarma-sarez eta eskeletoz atonduko dituzte Donostiako Antzoki Zaharra eta Victoria Eugenia, litxarkeriaz eta garagardo katxiz hornituta gerturatuko dira ikusleak, pelikulak iraun bitartean publikoaren garra-siek, komentario umoretsuek eta trufek berotuko dute giroa, mozorroa janztera ausartuko denik izango da, edo katana bizkarrean daraman samurai zale porrokaturen bat, edo aurpegia margotuta paseatzera aterako den koadrilaren bat.

Osotasunean, dibertsioa gailentzen zaio eskainitako filmen kalitateari, eta denetik aurkitu ohi dugu egitarauan, ona eta kaskarragoa. Guztien gogoia asebetetze aldera, nagusiki hiru motatako lanak proiektatzen dira zinemaldian: thriller kutsuko beldur psikologikoarekin jolasten duten istorioak, erraiak eta *gorea* maiteago dituen terrore efektista, eta izua baino gehiago barregura sortzen duten pelikula ero eta harri-garriak. Edizio honi ez zaio ezer falta: baditu zonbiak, jakina (*Cockneys vs Zombies*); baditu piztia nazkagarriak, noski, tartean txipiroi erraldoiak eta hiltzeko makina bihurturiko hegialbur pusketak (*Dead Sushi*;



Grabbers); baditu esperimentu susmagarriak, gaixotasun arraroak eta hildakoak, hiltzeko moduak, heriotza sailkaezinak (*Sinister*; *The ABCs of Death*; *Deranged*; *Insensibles*); eta nola ez, badu *anime* japoniarra (*Blood-C*; *The Last Dark*). Parte hartuko duten zuzendari ugari eskarmentua dute generoan, tartean Scott Derrickson, Ti West, Xavier Gens eta Noboru Iguchi zinegileek. Srdjan Spasojevic-en lan bat ere izango da; duela bi urte haren *A serbian film* pelikula aurkeztu nahi izan zuten jaialdi honetan, baina film esplizitua izanik, “sexu askatasunaren aurkako deliturik” ote zegoen ikertzeko proiektzioa debekatu zuen Donostiako epaitegi batek, prebentzioaren izenean. Zinema zentsuratzeko plazer ezkutuak bizi-bizi dirauela erakutsi digute berriki, ez ahal da osteria halakorik gertatuko.

Nostalgikoen gozamenerako, Steven Spielbergen *Marrazoa* eta E.T. *Estralurtarra*, David Bowie aktore duen *Labyrinth*, edota Bill Murray eta gainerako mamu-harri-pari xelebreen *Ghost Busters* gogoangarria ikusi ahal izango ditugu berriz pantaila handian.

Eta zine aretoetatik at, Drakula kondeari buruzko erakusketa Okendon, banpiro bihurtzeko makillaje eta mozorro tailerra —eta segidan poteoa Alde Zaharrean—, lehiaketa, ginkana... Aspertzeko betarik ez: festa eta ikara, elkarren eskutik astebez. ■



Goi-goiko irudian, iazko poteo mozorrotua Donostiako Alde Zaharrean (urriaren 27an egingo da aurten); behean, ezker-eskuin: zinemaldia irekiko duen *Sinister* filma, *Ghost Busters*-en kartela, eta Bela Lugosi Drakularen rolean. Banpiroari eskainitako erakusketa prestatu dute aurten.

Zaila izango da dinosauroak berreskuratzea

JURASSIC PARK eleberrian Michael Crichtonek dinosauroen itzulera imajinatu zuen. Eltxo batek odolean garraiatzen zuen ADNaren klonazioari esker musker erraldoiak Lurrean berragertu ziren. Steven Spielbergek eraman zuen zinemara istorioa.

Berriki *Proceedings of the Royal Society B* aldizkarian argitara emandako artikulua batean, ikertzaile talde batek dio ADNaren degradatzen joaten dela urteak igaro ahala, eta ezinezkoa dela 65 milioi urtez mantentzea.

Baieztape hori egin aurretik, Zeelanda Berri bizi izan zen moa txori espeziearen 159 hezur aztertu dituzte. Behatu dutenez, ADN molekula batek bere propietateen %50 galtzen du 521 urtero; 65 milioi urte igaro ondoren ezer gutxi geratuko dela pentsa daiteke. ■



Erregaia itsasoko uretatik lortzeko bideak aztertzen



AEBETAKO ITSAS ARMADAK askotan itsaso zabalean hornitu behar izaten ditu bere ontziak erregaiz. Maniobra konplexuak izaten dira horiek, eta eguraldiaren zein itsasoaren baldintzen arabera zailtasunez beterikoak. Hori dela eta, denbora daramate hidrogenoa lortzeko saiakera egiten.

Helburu horrekin, azidifikazio elektrokimikoko zelulak sortzen eta probatzen ari dira. Zelula horien bidez, itsasoko uretatik karbono dioxidoa

eskuratzen dute lehenbizi; ondoren, CO₂ hori transformatu eta hidrogeno molekularra (H₂) askatzen dute, eta azkenik hidrogeno hori karbono dioxidoarekin birnahasten dute, hidrokarburoak lortzeko. Azken hori erregai gisa erabili daiteke. Prozesu horren bidez erregai tradizionala lortzeko litzateke, hau da, bere erre-kuntzak karbono dioxidoa askatuko luke. ■



Absentismoa baino "presentismoa" bihurtu da kezka iturri

Europar 2007tik hona absentismoa gero eta txikiagoa da, eta aurkako fenomeno gertatzen ari da, hau da, gero eta gehiago dira lantokira behar baino goizago joaten direnak eta gero eta beranduago irteten direnak. Une honetan absentismoa baino kezka handiagoa sortzen ari da presentismoa.

ttiki.com/43407
(Frantsesez)

CO₂-ak hodei kopurua gutxitu dezake

Zenbat eta beroagoa izan airea, orduan eta errazagoa da ura lurruntzea eta beraz hodei gehiago sortzea. Baina arau hori ez da beti betetzen. CO₂ gehiago egoteak airea beroago bihurtzen badu ere, aldi berean hodei gutxiago sortzea eragin dezake, landareekin zerikusia duten zenbait prozesuren bitartez.

ttiki.com/43408
(Gaztelaniaz)

Gripea garatu aurretik transmititu daiteke

Hudoe kin egindako ikerketa baten arabera, animalia horien gripea garatu aurretik transmititu daiteke. Gizakiarekin gauza bera gertatzen ote den ari dira aztertzen une honetan, oso garrantzitsua baita gripearen aurkako borrokan haren transmisio bideak eta fisiologia eza-gutzea.

ttiki.com/43409
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Mendika koxkor

FRUITU KOXKORREN BILA dabilena ezin kexatuko da aurtengo uzta dela eta. Mendika astalarrosa (*Rosa canina*) aitatu berria dut, baina bestelakoetatik ere ugari eta on dugu. Uda nolakoa izan denak, asko lagundu du. Hezetasuna da gure lur atlantikoetako landareen arazo latzena. Oro har, urzaleak dira, baina lurreko eta aireko urak bere tamainatik gora egiten duenean, landareak kaltetzen dituzten ondokoak erruz ugaritu eta erasokorra go bihurtzen ditu. Aurtengo uda lehorrak beste aldekoa ekarri du. Ur eskasiak gaitzak atzendu ditu, eta landareek urritasun hori ere sufrituagatik gehienek iraun dute. Fruituak sekula baino ttattarragoak ikusi ditugu udan, baina sasoi horren amaierako ihintzek eta euri apurrek koxkor kaxkarrak koskortzea ekarri du. Gaitzik gabe garbiak eta ur gehiegirik gabe haziak, kalitate goreneko igaliak dira aurtengoak. Atzo bertan nioen sagardogile bati, bertako sagarrekin taxuz egindako sagardoak, sekulako onenak izango ditugu hurrengo udan. Taxuz diot, askok eta askok astakeria latza egiten baitu: sagarra arbolatik erortzeko heldutasunera iritsi gabe dagoenean, haga luzearekin jo eta moildu, eraitsi. Heldu gabeko sagarretik halako sagardoa.

Sagarra biltzen da, baina garai batean neguan elikatzeke biltzen genituen makina bat fruitu utziak



LUC VIATOUR / WWW.LUCNIX.BE

Astalarrosaren (*Rosa canina*) lorea.

ditugu. Horrela mendikak, astalarrosa delakoa adibidez. Saparlarra, luisalea, otsolarra... Izen ugari duenez bere ekosistemakoak gara, gu gara bere lurretara bizitzera etorriak. Aspaldian negurako bildu, jaso eta zainduko zen fruitua dela zalantzarik ez izan. Europa iparraldera joanez gero, landu egiten dute, astalarrosadiak dituzte, gure sagardien tankera bertsuan. Baita jan ere. Bere koxkorrekin egindako zopa ezaguna da, baita potoetako kontserba gozoak ere, erreximentak eta abar.

Lagun baten ama eibartarra,

Dorita, astalarrosa eltzean dantzatzen iaioa da. Ahosabaia garunpetik zerura igotzen dute bere jeleek eta marmeladek. Azken hori egitea zaila da oso, aspergarria da banaka-banaka koxkorak haziz eta iletxoz hustea. Jelea errazagoa da: eltzekada fruitu urez estali eta ordu eta erdiz egosi, iragazi, gozatu eta nahi izatera kamamila lore edo menda hosto gutxi batzuk erantsi. Aho gozoa zerura doa artean arnasketa goxatzen eta katarroa baretzen du. ■



GOIZPER

50 urte baino gehiago merkatuko liderrak izanik, berritzaileak izateko konpromisoarekin jarraitzen dugu, zer eta gure bezeroei produktu zein zerbitzurik onena eskaintzeko.



- Ihintzagaillak: lorezaintza, nekazaritza, industria, bektor kontrola eta etxerako
- Industria sektorerako potentzia transmisiorako osagaiak

Antigua Kalea, 4 ANTIZUOLA (Gipuzkoa) • Tel. 943 78 60 00 • www.goizper.com



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Niko Etxartek esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


4	6		7	3		9		
		3	4		6	8		2
1	8				9	4		
	3	1						4
9	5	6				7	2	1
2						3	9	
		9	1				8	3
3		5	6		7	2		
		8		9	4		5	7

Zaila

5			3	2	8	9		
9				7	6	3		1
							2	
	1	2		5				
3								5
				3		6	1	
	6							
4		3	5	8				7
		5	7	6	3			9

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Ihes egin. 2.-Hego. 3.-Hogeita lau ordu. 4.-Sakratu. 5.-Bizitasunik gabe.

Kike Amonarrizen umorea

Urpekariak

Gasteizko bi haur, oporren inguruan kontu-kontari. Itsasora egindako irtenaldi baten nondik norakoak azaltzen ari dela, batek honako hau galdetu dio besteari:

- Eta zuk badakizu urpekariak zergatik egiten duten jauzi itsasora, atzealdera?
- Kontxo! Ba jauzia aurrealde-



ra egingo balute txalupa barrura eroriko liratekeelako!



Soluzioak

Erraza

4	6	2	7	3	8	9	1	5
5	9	3	4	1	6	8	7	2
1	8	7	2	5	9	4	3	6
8	3	1	9	7	2	5	6	4
9	5	6	8	4	3	5	7	2
2	7	4	5	6	1	3	9	8
7	4	9	1	2	5	6	8	3
3	1	5	6	8	7	2	4	9
6	2	8	3	9	4	1	5	7

Zaila

5	4	1	3	2	8	9	7	6
9	2	8	4	7	6	3	5	1
7	3	6	1	9	5	8	2	4
6	1	2	8	5	4	7	9	3
3	7	9	6	1	2	4	8	5
8	5	4	9	3	7	6	1	2
1	6	7	2	4	9	5	3	8
4	9	3	5	8	1	2	6	7
2	8	3	7	6	3	1	4	9

Puzzlea:

“Bazuentzat rocka euskaraz egitea euskara zikintzea eta traizionatzea zen, bekatu mortala. Pentsa, autoko gurlak ere zultatu izan dizkigute”.

5x5:

1. Ihesi. 2. Hegal. 3. Eguna. 4. Santu. 5. Ilau.


Protestek ekarritako lehoiak

FOTO MADRID

MADRIL, 1850EKO URRIAREN 31. Espainiako Diputatuen Kongresuko eraikin berria, Narciso Pascual Colomer arkitektoaren lan neoklasikoa, inauguratu zuen Elisabet II.a erreginak. Zazpi urtez, eraikuntza lanek iraun bitartean, diputatuak Madrilgo Errege Antzokiko dantza aretoan bildu behar izan zuten, eta gustura hartu zituzten instalazio berriak. Ez, ordea, atariko eskaileraren alde banatan ipini zituzten kaleargiak. Politika eta argitasuna ondo ezkontzen ez direlako-edo, parlamentarioek farolen aurkako protesta eraginkorra abiatu zuten eta berehala kendu zituzten.

Hutsunea azkar betetze-ko, eraikineko frontispizioa egin zuen eskultoreari, Ponciano Ponzanori, lehoi pareta egiteko eskatu zioten. Baina Espainiako egoera ekonomiko kaxkarra zela eta, artistak material noblei uko egin behar izan zien. Lehoiak igeltsuz egin eta gainetik pintatu zituen, brontze itxura emateko. Meteorologik ez zuen gupidarik izan eta handik urtebete eskasera, herritarren eta prentsaren kritikak medio, Gorteetako arduradunek material iraunkorragoz lehoi pare berri a egiteko enkargua egin zioten José Bellver eskultoreari.

Baina Bellverrek ere ez zuen aurrekontu handiegirik, eta harrizko bi lehoi txiki diseinatu zituen. Gorteak zaintzen zituzten lehoi basatiak baino gehiago, katutxo



Espainiako Kongresu atariko lehoi bikoteak 1872tik zaintzen du eraikina. Baina hogeitiki gora behar izan ziren denen gustuko felinoak lortzeko.

kiloko felino ikusgarriak Sevillan moldekatu zituzten 1865ean. Azkenik, 1872an ipini zituzten gaur egun dauden tokian. 1808ko maiatzaren 2ko heroien izenez bataiatu zituzten: Daoiz eta Velarde. Baina herritarrek berehala jarri zizkieten goitizenak: Benavides eta Malospelos.

Horrenbestez, Espainiako Diputatuen Kongresuko lehoiak kostata eta protestek bultzatuta iritsi ziren gaur egun dauden tokira. 140 urte geroago, aho zabalik ikusi dute herritarrei, protesta egin arren, ez dietela Kongresuko atarira hurbiltzen utzi. ■


errukarriak ziruditen zutoin handi horietan galduta. Berriro ere, protesten eraginez erretiratu zituzten. Ikusmina duenak, Valentziako Monforteko lorategietan topatuko ditu.

Garbi zegoen irtenbidea metalezko pieza handiak egitea zela, baina diru aldeetik proiektu hura ez zen bideragarria. Harik eta Afrikako gerrak sabanako erregeei behin betiko bultzada eman zien arte. 1860ko martxoaren 23an, Wad-Raseko guduan, espainiar osteeak garaipena lortu zuten eta brontzezko hainbat kanoi konfiskatu zizkieten etsaiari. Gobernuak kanoiak lehoi bihurtzea erabaki zuen. Lehenengo eskultura parearen egileari egin zioten enkargua. Ponciano Ponzanoren 3.500



Arrastoak

Antzinako Egiptoko enpasteak



I. J. OF PALEOPATHOLOGY

TEBASKO gazte baten momiaren burua erresoluzio handian eskaneatu berri dute eta, 20-30 urte bitarteko gizonezkoak hortz-hagin arazo larriak zituela ikusteaz gain, bi “enpaste” topatu dizkiote. 2.100 urte dituzten betegarriak piku zukutan edo zedro oliotan bustitako liho

oihalez daude eginak. Momia egiptotarretan horrelakorik ez dute orain arte aurkitu, eta tratamenduak infekzioa geldiaraztea eta mina arintzea zuen helburu. Baina ez zen oso eraginkorra izan, gaztea ahoko infekzioaren konplikazioen ondorioz hil baitzen. ■

Energia berriztagarritz elikatutako herria

Tramayes herriko auzapeza da Michel Maya. Ingeniaria. Energia jasangarriei buruzko hiru hitzaldi eman ditu Baiona, Lasa (Garazi) eta Maulen berriki, Bizi! mugimenduak gonbidatuta. Baionan, bere herriko iragaite energetikoaz mintzatu da luze eta zabal, biomasaren bidez sortutako energiaz. Gure herriek Tramayes izan dezakete mirail.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Bizi!



Tramayesko berogailu-gunea. Herribarneak behar duen energiaren parte handiena elikatzen du hiru sareen bidez.

1800. URTEAN 1.000 MILIOI biztanle ginen munduan. 2000n 6.000 milioi, eta 7.000 milioi 2011n. “Garapen horrekin ezin dugu beste berrogeita hamar urtez iraun. Planetaren baliabideak ezagututa, gure ahalbideen gainetik bizi gara” dio hizlariak. Tramayes (Frantziako Saône-et-Loire departamendua, Borgoina erregioa) herrian 1.000 jende bizi dira egun.

1836an 2.431 ziren. Tramayesen, duela mende eta erdi bizi zen biztanle kopuru herena bizi da gune bertsuan. Datuok, munduko populazioaren hazkundearen eta herri txikiaren exodoaren isla dira. Tramayesko erdigunearen (*Bourg*) luzetabaleraren bertsua zen 1990ean, 1940an eta 1836an: “Espazioaren kontsumitzaileak gara, baina berezi-

ki, energiaren kontsumitzaileak bilakatu gara” dio Michel Maya auzapezak. Herriko agintea hartu ondoren Zoruaren Okupazio Plana (POS) berriro dute. Herriguneak kilometro bateko luzera du. Eguneroko beharretarako saltoki-gune guztiak —okindegia, harategia, txarkuteria eta abar...— toki berean daude; Osasun Zerbitzua barne. Eguneroko

Bizi! mugimendua, 2014ko Herriko Etxeko bozei begira lanean

Energiaren krisia eta klima aldaketaren gaiak plazaratu zituzten 2010ean. Frantziako Legebiltzar-erako bozen hautagaiei galdeketa –25 galdera zehatz– proposatu diete aurtengo udaberrian. 2013ko urtarrilera arte buru-belarri segituko dute Bizi!-ko kideek. Programa zehatza lantzen ari dira energiaren eta klimaren alternatibei buruz.

2014ko Herriko Etxeko bozei begira lan estrategikoa abiatu dute. Alternatiba hauek hirigintzan garatu ahal izateko behar diren bitarteko finantzariak aztertu dituzte. Udal bozketarako osatuko diren hautagaiekin elkarrizketatu nahi dute –edozein direla euren joerak– eta programa energetiko alternatibo hau euren programan sartzea

proposatuko diete: “Dena ez bada posible, parte bat bederen. Askotan ez dago borondate eskas, eza gutza falta baizik”, diote. Hiriko garraioa eta mugikortasuna dute betiere langai. Hegoaldera begira ere ari dira. Elkarte engaiatuak gonbidatu nahi dituzte, eta 2014an hainbat ekitaldi plazaratuko dituzte herriko bozen aitzinetik.

bizitza kilometro baten joan-etorrian gauzatzen dute. Alta, oraintsu arte 200 gramoren *bagetaren* bila joateko, 800 kiloko autoa mugitzeko ohitura izan dute bizilagunek. Denbora galtzeaz gain, energia alferrik xahutzen zuten. Beste datu bat: Frantzian, hiritar bakoitzeko 40.000 kwh xahutzen da egunero.

Auzapeza horrela mintzo omen da herritarren aitzinean: “Energia prekaritatea dugu, ezin dugu bizi-rik iraun orain ari garen bezala. Energiaren kontsumoa mugatu behar dugu”. Merkatal-gunea iparraldean dago eta oinezkoen bideak antolatu dituzte hirigintza berrian: “Ezin izan dugu edozein gauzarik egin. Iparraldea eta hegoaldea batera eraiki behar izan ditugu, baina hiria zabaldu gabe”. Eliza, festa-aretoa, eskola, ospitalea, kiroldegia eta etxebizitzak hiru gune nagusietan antolatuta daude.

Berogailu-gunea

Energia sistema da egungo herrigunearen lotunea. Tramayesko sistema zaharrak 108.000 litro fuel-oil erretzen zuen urtean, baita 246 tona karbono dioxidoa (CO₂) bota ere atmosferan. Erregioek eta departamenduek energia fosilaz hornitzen den herria ez dute diruz laguntzen egun Frantzian; energia berri-rtagarriz elikatutakoak bai. Michel Mayaren udal taldeak proiektu ekologista eta berri-rtagarrria landu du. Energia berri-rtagarrria lortzeko egurra herrian daukate, bertako lur-zorua- ren %30 basoa baita. Lurrak ez dira komunarenak, pribatuak baizik. Halere, 1.200 kw sortuko zukeen berogailu-gunea eraikitze-ko xedea hartu zuten. Ospitalea da herriko

enpresa erreal bakarra Tramayesen: 95 ohe ditu, 60 kw behar du eguneko. Festa-aretoa, Eskola, Herriko Etxea, Kiroldegia eta Udal-lantegiak dira energia kontsumitzaileen beste gune inportanteak. Areago, azken urtean, ospitalea berri-rtu eta handitu dute: 750 m² zituen eta 1.000 m² ditu orain.

Hiru sareen bidez

Hiru sare eraiki behar izan dituzte Berogailu-gunetik hiru eraikin-gune nagusiak elikatzeko. Proiektuan, itxuraz garestia, 1.059.567 euro inbertitu dute. Halere, ez dute dudarik ukan. 500.000 euroko kreditua hartu dute. Honek herriaren inbertsioaren sosa parte handiena hartu du hamar urtez. Finantzazio honekin 1.400 metroko sarea eraiki dute. 1.400 Kwh kontsumitzen dute urtean, eta 120.000 euroko faktura dute. Faktura ekonomizatzea lortu dute horregatik. 110.000 litro fuel-olio gutxiago erabili dute herrian, eta %60 CO₂ gutxiago airera bota ere: “Hasteko eta behin, ospitalea beti berotua izatea lortu dugu, orain arte ongi aritu gara [ironiaz ari da]. Bestalde, planetari begira lortu duguna gutxi al dirudizue? Eta denok egingo bagenu?” dio Michel Mayak kontent.

“Ospitalea da herriko enpresa erreal bakarra Tramayesen: 95 ohe ditu eta 60 kw energia behar ditu eguneko”

Michel Maya
Tramayesko auzapeza

Egurra erregai

Egur hondarrak erretzen dituen berogailu-lantegi bakarra da departamenduan. Lau kilometrorra dagoen zerrategitik ekartzen dute gaia. Egur-enpresa da. Mendiko nekazari-ek garraiatzen dute egurraren hondakina: “Ordainduak, noski”. Tokiko ekonomia garatzen dute hartara. Zerrategian haritza da nagusiki lantzen. Zurajerako ez dena berogailura doa. Ez dute biltegi beharrik, egurra kanpoan egoten da. Berogailuak egurraren hezearen %60 onartzen du, egur kilo batek 600 gramo ur daukala sartu dezake- te berogailuan. Abuztuan moztuta-ko egurra azaroa-abenduan sartu ohi dute berogailuan, konparazione. Lehortu beharko balute kario litza- teke. Gainera, egurra lehorra balitz berogailua matxuratuko litzateke. Berariaz prestatutako berogailua da. Nahiko eta sobera egurra dute, eta domaia da egurra behar gehiagora-ko ez ustiatzea. Guztira, fuel-olioa erretzen zutenetik egundaino, 117.00 kwh irabazi dute urteko. Ekoizpenean kw-en %63 irabazi dute. Hots, sistema berritzen ari dira, eta gero eta hiritar gehiago bil- tzen da sarera egunetik egunera.

Auzo ekologikoa

63 etxebizitza berri egin dira azken urteotan. Alokairuan hartutako bizi- toki sozialak dira. 50 kwh kontsumi- tzen dute metro koadroko. Berogai- luaren sarea zabaltzea erabaki dute: “Inbertitu behar bada, inbertitu dezagun. EDFk [Frantziako konpai- nia elektriko] ez du ezer berririk asmatzen”. Fuel-olioa baztertu eta egurra erabili, horra gakoa. Garestia da inbertsioa, baina funtzionamen-



“Planetari begira lortu duguna gutxi al dirudizue? Eta denok egingo bagenu?” dio Tramayesko auzapez Michel Mayak.

dua merkeagoa da. Egurrak %70eko inbertsioa eskatu du, baina kontsumoaren %30 merkatu du. Fuel-olioak %30 inbertsioa eskatzen zuen, baina %70 gehiago kontsumitzen da. Beste datu bat: datozen hogei urteetan inflazioak askoz gehiago eragingo du fuel-olioan, egurrean baino. 2011n, fuel-olioaren salneurria %35 igo da. Egurrena, aldiz %11. Ondorioz, biomasa bidez 966.196 euroko gastua izan dute, fosila erabiliz, berriz, 1.375169 euro zuten. Auzo berria ere sarearen bidez izanen da elikatua aurrerantzean: auzoko energiaren kontsumoaren %40 aurreztuko dute.

Argiztapen publikoa

Gure kulturaren arabera “herrigunetik kanpo ez dugu argirik behar, baina herrigunean ezin da murriztu”. Tramayesen urrutiko agintegailu bidez argitu ohi dituzte kaleak. Argiztapena sistema fotoelektrikoen bidez zegoen pilotatua, zazpi eta hamaika ordu artean gauez. Gastuak izugarriak ziren. Diferentzia handiak zeuden eta bizilagun batzuk ez zeuden ados, batzuen kaleak besteenak baino gutxiago argituak zeudelako. Plangintza berriaren arabera, herri osoa zazpi orduetan jarriko dute; kuota minimoan. Satelite bidezko erloju astronomikoen sistema aztertu dute:

“Gaueko ingurumenaz arduratzen den elkartearekin aztertu dugu gaia, eta aldaketa handia dela ikusirik, gaueko argiztapena aldatzea erabaki dugu”. 2008an abiatu zuten proiektua. 2.400 euro ordaindu dute zortzi ordulari astronomikoak martxan jartzeko. Aurreikuspenen arabera, gastuaren %50 murriztuko dute: 50.000 kwh. 2006an 6.300 euro behar zuten argipen publikorako, 2011n 1.300 euro. Mayak hainbat gogoeta eskaini du gai honen inguruan: “Zein da gaur egungo arazoe-tako bat, bada, bideko segurtasuna. Den-dena argiztatu behar da. Legeak ez gaitu obligatzen kaleak argiztatzea, guk sortu dugu behar hori. Legeak dio autoak baduela bere argia”.

Tramayesko esperientzia horrela azaldu du auzapezak: hiriguneak horren argituak ez direnean, motelago omen gailtza autoz. Aldiz, ongi argiztatuak direnean ia egun argitan bezala goaz, edo azkarrago. Aldiz, errotonda ez badago ongi argiztatua, autoaren abiadura gelditzen dugu, balazta sakatuz. Beraz, errotonda ez dago hainbeste argiztatu beharrik. Argiztapen Elkarteak dioenez, argiak ez du ziurtatzen bideko segurtasuna. Areago, kontsumo handiagoa da alde guztietatik begiratuta: autoaren erregaia eta argiztapenarena.

Herritarrek bestelako kezka ere agertu omen dizkie Tramayesko agintariei: “Ez bada argiztapenik kalean lapurretak izanen dira”. Arrapostua: “Zuk zure etxea horregatik uzten duzu argitua gau osoa? Ez. Zergatik?”. Ez eskatu kolektibitateari zure etxe ingurua argitzeko dio auzapez honek. Gainera, kalea ez bada argitua, lapurrak argigailua eraman behar du. Lapurra linternaz ibiltzen bada, jendeak berehala erreparatzen du harengan. Aldiz, kalea argiztatua denean, lapurrak etxeetan sartzen dira beren etxeetan sartuko balira bezala.

Jendearen eta kalearen segurtasuna ez da hobe argi gehiago dagoelako. Beste adibide bat: elizen argiztapena, eta monumentuena oro har. Monumentuek balore handia dute nean, proiektagailuak barra-barra erabiltzen dira haiek argitu aldera. Monumentua eta zero osoa argitzen dute. Askotan, ez da ageri ikusi nahi duguna, argigailuek oztopatzen digute ingurua ikustea. Galdera da: monumentuak argitzeko beharra al daukagu egunero? Egun berezietan, ospakizunetan, ematen diegu balorea. Ordea, egunero daude argituak. Zertarako? Agian, argiztatuak direlako ez diegu jaramonik egiten.

Eta publizitatea? Eta erakusleihoak? Gau osoa pizten ditugu. Lehen orduak ongi, baina gau osoan ez da inor pasatzen. Jendea lo dago, beraz itzali daitezke. Hara, gauean, kanpoko argia sartzen da etxeetaraino. Kontrako argudioak badaude, eztabaidagarriak. Baina badago zer aztertu eta zer ikasi.

Tramayesen egindako berrikuntzek aldaketak ekarri dituzte: kontsumo publikoa 90.000 kwh-koa zen eta gaur egun 45.000 kwh ari dira kontsumitzen. Eta areago apalduko omen dute. Aurtun, kaleko argiak gau-erdian itzali eta 5etan piztu beharrean 5:45etan pizten hasi dira. Bonbillak aldatu dituzte: 70 w-ekoak 125 w-ekoen ordeztu. Argiztapen berberarekin kontsumoa apaldu dute. Areago, eguzki-energia baliatzeko, kiroldegiko 800 m²ko teilatu zabal eta lauan plaka fotovoltaiako jarri dituzte: 224.000 euro inbertitu dute eta 33.000 kwh ekoitziko dute urtean. Egin kontu! ■

MICHEL MAYA

«Zuen egurra ustiatu behar duzue energia sortzeko»

MICHEL MAYA auzapez ingeniariak eskainitako hitzaldiaren ondoren, hainbat kezka eta iradokizun azaldu zizkioten entzuleek. Hona, hauetako batzuk.

Tramayes herriak erraza dauka egur hondakinen erabilpena, irudiz.

Ez dut uste Tramayes hobeto edo okerrago dagoenik beste herrien aldean. Egurra badago nonahi, kontua da berau garraiatzea. Egurra erabiltzeko guk dugun aukera ez da zuena baino hobea, benetan. Niri laurogei kilometrotik deitu eta esan didate: “Auzapez jauna, guk egur hondarrak dauzkagu, salneurri ona akordatzeko prest gaituzu”. Hau da, garestiago ateratzen zaie egur horiek basotik kentzea guri saltzea baino. Benetan, egurra badago, baina botatzen da alferrik.

Berogailuek matxurak izaten dituzte. Oztopo handia al da hori?

Matxurak ditugu, noski. Oztoporik den? Zerbitzu teknikoan hiru gara, ni naiz horietako bat. Beraz, zenbaitetan arazo teknikoak interesgarriak bihurtzen dira. Gurera ez dator kanpoko teknikaririk matxurak konpontzera. Guk osatzen dugu talde teknikoa eta arazoak konpontzen ikasten dugu. Gehie-

netan giza akatsak dira, adibidez, mailua ahanzi dugu labean edo engranajea. Huskeriak dira. Noski, proiektua espezialisten esku utziko bagenu garestiagoa litzateke. Halaber, pieza-gailu bat berritu behar badugu, ez dugu berehala botatzen. Txukundu eta herriko beste lanetarako egokitzen eta berreskuratzen dugu.

Baionako itsaso-portutik kargamendu asko ateratzen da Europako ipar lurraldeetara: etxe-tresnak direla, egurrak direla...

Horiek energia iturri berreskuragarriak dira. Zergatik ateratzen dira hemendik? Ziur aski erabilpenik ematen ez zaielako. Edota zuen herri edo hirietan berogailu sistemarik ez duzuelako. Gogoetatu behar duzue energia berriztagarriari buruz, eta beharbada, egurra ez da aterako hemendik kanpo. Zuen egurra hemen ustiatu behar duzue. Ez gaitezen tronpatu: Frantzia egurraren beroa da energia gehien ekartzen duena. Zentral hidroelektrikoek baino bero gehiago ekartzen du egurraren bero-energiak. Nire ustez, hemen, Euskal Herrian, ez duzue aski hitz egiten egur-energia erabiltzeari buruz. Eta zinez interesgarria da.

Baina, Tramayesko berogailu sistema aplikatu al daiteke. Baiona-Angelu-Biarritz konurbazioan?

Nik ez ditut BABaren egitura eta beharrak ezagutzen, baina hirietan gero eta gehiago ari da zabaltzen egurraren bidezko energia. Sareak zabaltzen ari dira, HLMak [etxebizitzaren publikoak] berogailu-sareen bidez ari dira berotzen. Hitz bitan, berogailu zentralizatu baten eta sare baten bidez. Grenoblen, kasu, 25 kilometroko sarea dute. Ez da Tramayesko hedadura inondik ere [jendea harritu da]. Ez da berogailu bakarra noski, sare zabal baten barruan daude instalatuta.

Ingurumenari buruzko konferentzietan Estatuko organismoak sistema honen alde daude. Egur-berogailuak erakargarriak dira, jendea ohituta dago egurra garraiatzen etxe partikularretan. Halaber, egur tximinien emisioaren poluzio tasa apalagoa da fuel-olioarena baino. Bestalde, tokian tokiko egurren garraioak murrizten du fuel-olioaren garraioa. Hau da, askoz kilometro gutxiago egiten da egurra garraiatzeko, beraz, CO₂ emisioen tasak askoz apalagoak dira. Guk egurra lau kilometrorantz hartzen dugu, fuel-olioa berriz ehunka kilometro egin ondoren iristen da guregana. ■





EUREKAko Simulagailuetan dibertsioa ziurtatuta duzu!

- I FORMULAekin.
- MAX FLIGHT. Hegazkin simulagailuarekin.
- ORION izarretako ontzi interaktiboarekin.
- Eta gure MRI eta MR2 errusiar mendiko simulagailuetan.

Leku kopuru mugatua.




DONOSTIA / ☎ 943 012 478 / Informazio gehiago: www.eurekamuseoa.es

EUSKARA LAN MUNDUAN

Teknikariak, langileak, liderrak... mahai bueltan

Aurten hamabost urte bete ditu Emunek, Lan Mundua Euskalduntzeko Kooperatibak. Urriaren hasieran, urteotan euskara plangintzetan murgildu diren enpresetako teknikari eta langileak batzeko *Euskara lanean bidea egiten* jardunaldiak antolatu ditu.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

KRISIA KRISI, euskara planentzako aukerak sortzen jarraitu behar dela nabarmendu dute. Enpresek, desberdinak izan arren, antzeko prozesuak bizi dituztenez, elkarren berri eduki eta esperientziak elkartrukatzeari izan da jardunaldien helburu nagusia. Emunek komunitate bat sortu gura du, euskara planak garatzeko lanean dabiltzan pertsonak hainbat gunetan elkartzeko.

“Enpresa batzuentzat sinestea bera da erronka, eta sinetsi dutez gero, lortzea”, esan du jardunaldi hasierako bideoan ageri den protagonistetako batek. Euskara planagaz hasitakoan, itzulpenak, euskarazko errotuluak... aurrerapauso eta arrakastak nahiko erraz ikusten direla aipatu dute parte hartzaileak. Geroago batzarrak euskaraz egiteko ahaleginak etorriko dira, erabilerak formalak itzulpen hutsetik egindako dokumentaziotik harago joatea, langileen arteko harremanetan eragitea... eta sinetsitakoa lortzea izango da erronka.

Enpresetan egindako bideen berri eman eta esperientzia trukaketa egiteko lau tailerretan banatu dira parte hartzaileak.

“Lan munduak euskaldundu nau”

Inguruko pertsonen ohiturek guran duten eraginaren seinale da Jabi Santos enpresaren esperientzia. Bere bizipena kontatu du *IkasTari*, *ezagutzatik erabilerarako* hainbat bide tailerrean.



Batik bat tailerrak izan zituzten jardunaldietan, teknikariek, langileek, euskara batzordeek... bizipenak parteka zituzten.

Euskara ikasteko gogoak bazeukan lehenagotik, baina bere lanean –Mondragon kooperatiban, Aretxabaletako Otalora enpresan egiten du lan,– euskara behar zuela sentitzeak bultzatu zuen euskaltegirako pausoa ematera. Euskararen ezagutzan eragina daukate norbanakoaren motibazioak, taldearen eraginak eta erakundeko zuzendaritzak. Hiru arlo horietako esperientziak entzun dituzte.

Euskal hiztunak elkarriketa elebidunak edukitzeko prestatzea garrantzitsua dela ondorioztatu dute, eta ez dakitenek edo gutxi dakitela pentsatzen dugun lankideek zenbat dakiten neurtu behar dela; “sorpresa handiak hartu daitezke”. Euskaldun zaharrek euskararako ohitura edukitzea eta euskaldun berriekin pazientzia edukitzea beharrezkoak izango dira. Zuzendaritzak gutxienean ezagutza eta

inplikazioa edukitzea ere bai, ezagutza bultzatzeko formazio planak eta euskara eskola bereziak sortzeko orduan, esaterako.

Motibazioa, ardura nagusia

Jabi Santosek euskara ikasi eta euskaraz berba egiteko motibazioa zeukan, baina zelan piztu daiteke gogo hori? Motibazioaren indarrari buruzko tailerrean gai hori landu dute. Enpresetako euskara batzordeek hainbat kanpaina, berripaper, irteera... egiten dituzte kontzientzia sortzeko. Bizkaiko Markina-Xemeingo Eika kooperatiban, esaterako, ekaineko egun baten Euskararen Eguna ospatzeko ohitura hartu dute. Jai eguna izaten da, eta irteerak, bazkariak, jokoak... egiten dituzte. Azken urteetan eskualdeko beste kooperatiba batzuetako langileak ere batu dira egun horretara. Horrelako ekitaldiak batzuetan beste batzuetan baino hobeto irteten dira.

Euskara batzordeak hainbat ekitaldi antolatzen ditu, eta horiek komunikatzea beti ez dela erraza esaten diote. Berripaperetan, adibidez, euskara batzordeen berriei gainera, elkarrizketak eta departamentuetako berriak idazten dituzte, eta hainbat langilek parte hartu ahal dute. Batzuek gustura irakurtzen dituzte, eta euskara batzordera berripaperaren bidez gerturatu dira. Beste batzuek ez diete kasu handirik egiten. Berripaperaz gainera, Internet ere baliatzen dute komunikaziorako. Koordinazio batzarretan ere bere lekua eduki behar duela hausnartu dute; “euska-

ra batzordeko komunikazioa beste gaien komunikazioagaz uztartzeko premia dago. Zeharkako lerroa izan behar da euskara”.

Eremu informaletik formalera

Motibazioari buruzko tailerrean TELP (Taller d'espai lingüístic personal) ikastaroak ere landu dituzte. Hizkuntzarekiko autoestimua lantzen da ikastaro horietan, eta autoestimua hori izan da *Ari eta ibili* erabilerari buruzko tailerrean faltan bota dutena: “Batzuek eremu informalerako bai, baina laneko kontuak euskaraz komunikatu ezin dituztela sentitzen dute”.

Jabi Santosek euskara ikasteko gogoa bazeukan lehenagotik, baina bere lanean euskara behar zuela sentitzeak bultzatu zuen euskaltegiako pausoa ematera

Tailerrean euskara dakitenek euren artean gehiago erabiltzea lortu behar dela nabarmendu dute. Osakidetzako langile batek, adibidez, argi dauka langileek euren artean euskaraz berba egiteko ohitura edukiko balute zerbitzua euskaraz eskaintzea errazagoa izango litzatekeela. Eremu formalean, idatzizkoan sarritan euskara zerbitzuak egindako itzulpenak baino ez direla egoten adierazi dute. Batzarretan euskara lehen ez zuen presentzia lortzen dabilela konpartitu dute batzuek; beste batzuen kasuan hori urrun ikusten dute.

Sustrai eta adardun zuhaitza

Enpresa eta erakundeek euskaraz funtzionatzeko bidean beharrezkoak dira egitura bat eta protagonista batzuk: euskara batzordeak, teknikariak, zuzendaritza, tokiko liderak... Horien guztien egitekoa aztertu dute *Sustraietatik adarretara: plana enpresan erakundetzen* tailerrean. Egiturako atal bakoitzeko testigantzak entzun dituzte eta euskara batzordeen rola indartzearen premiaz berba egin dute. Tokiko liderren egitekoan ere sakondu dute; ez dira batzordeko kideak, eta ez daude enpresaren egituraren, baina euskararen aldeko jarrera erakusten dute enpresan, eta jendearen-gana iritsi eta eragin dezakeen jendea da.

Enpresen kudeaketan, nazioarteratze prozesuak eta merkatuen logikak euskara bigarren planoan uzten du sarritan. Beste hizkuntzekin elkarbizitzan egongo da, eta enpresako zuzendaritzak konpromisoa hartu beharko du enpresako arlo guztietan hizkuntza irizpideak errespetatzeko. Azterketek diote eremu formalean gorantz doala euskararen erabilera, baina informalagoetan eusteko tendentzia daukala. Eskailerak behetik gora garbitzen ez direnez, administrazioen eta zuzendaritzen inplikazioa beharrezkoa izango da, lankideen harremanak ahaztu barik. Jardunaldian esan dutenez, berba eginda, hausnartuta, kontzientzia hartzen da, eta koherenteago jokatzen da. ■



tradEBi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradEBi.com

Apokalipsi nuklearra abiatuko zuten hitzak prest zeuzkan Kennedyk

Mundua hondamenditik uste baino gertuago egon zela erakusten dute Kubako Misilen Kriaren 50. urteurrenean argitaratu diren dokumentuek. John Fitzgerald Kennedyk prest zeukan irlaren inbasioa iragartzeko diskurtsoa, bere anaiaren artxiboko materialen arabera.

| GORKA BEREZIARTUA |

“HERRIKIDEOK, bihotza estuturik, eta egin nuen zina betetzeko beharrez agindu ditut Kubako lurrian pilotutako arma nuklearrak suntsitzeko operazio militarrek, arma konbentzionalak bakarrik erabiliz –eta Estatu Batuetako Aire Armadak agindua betetu–” John Fitzgerald Kennedyk inoiz irakurri ez zituen hitzak dira. Kubaren erabateko inbasioa iragartzeko diskurtsoa prest zeukan AEBetako presidentek 1962ko urrian, Misilen Kriaren 50. urteurrenarekin bat eginez publiko egin diren dokumentuek erakusten dutenez.

Robert Kennedyren artxiboetako edukiak dira publiko egin direnak. Horien arabera, lerro gorri zehatza jarri zuen John F. Kennedyk inbasioa agindu aurretik: krisiak iraun zuen 13 egunetan misil nuklear gehiago zeramatzaten ontzi sobie-



Mende erdi igarota egin dituzte publiko dokumentuak.

tarrak Kubara iristen badira, eraso.

Horrelako erabaki bat III. Mundu Gerraren hasiera izango zela idatzi du Graham Allison Harvardeko irakasleak *Christian Science Monitor* astekarian. “AEBek aire-erasoa hasi eta Kuba inbaditu izan balute –dio Allisonek–, agintzen ari zen komandante sobietarrak ia

segurtasun osoz 100 arma nuklear taktikorekin erantzungo zukeen –eta JFK-k ez zekien irlan arma nuklear taktiko horiek bazeudenik ere–. AEBak erantzutera behartuta sentituko ziren, apokalipsi nuklearra piztuz”.

Krisia konpondu zen, akordio publikoak eta ultimatum pribatuak uztartu zituen sokatira diplomatikoaren bidez. “13 egun horietatik zenbat eta urrutirago, orduan eta zailagoa da jende askorentzat sinestea Kubako edo Turkiako misilen inguruko liskar batek AEBak eta Sobiet Batasuna gerra nuklearre bultzatzea” Allisonen ustez. Baina Robert Kennedyren paperek erakusten dute zergatik bat egiten duten historialari askok, egun haiek “historian izan den unerik arriskuetsuena” gisa deskribatzerako orduan. ■



inguru
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...

Gasteizko euskalgintzak harremana eten du Udal Euskara Kontseiluarekin

“KONTSEILUAN GENUEN HARREMANA posta elektroniko bidezko harremanagatik ordezkatu daiteke”. Gasteizko euskalgintzako ordezkariaren esana da, Udal Euskara Kontseiluari buruz ari dela. Gasteizko euskalgintzako ordezkariak eta udaleko ordezkariak biltzen zituen kontseiluak gaur egun funtzionatzien moduan zentzurik ez duela adierazi dute euskalgintzako ordezkariak. Azkeneko bilerara joan bai, baina bertan behera utzi zuten.

Euskalgintzako ordezkarietan ondoak daude: AEK, IKA, Udaberria eta Hegoaldea euskaltegiak, Zabalzana Batuz, Bai Euskarari, GEU, Arabako

Bertsozale Elkarte, Orhum Zine Foruma, Euskal Herrian Euskaraz eta Denon Eskola. Haien ustez, kontseiluak “ez du balio funtsezko eztabaidak bideratzeko, ez hartzen diren erabakiak betetzen direla bermatzeko, ez egokitzapenak adosteko”. Ez dute zalantzan jarri Euskara Kontseiluaren egitekoa, ezta udalak duen euskara normalizatzeko plana ere. Alabaina, bileretan udalak aurrez hartutako erabakiak azaldu baino ez zuela egiten salatu dute. Hilabeteak zeramatzaten horrela, eta azkenean, harremana bertan behera uztea erabaki dute. Euskara Zerbitzuarekin zuten harremanari eutsi egingo diote. ■

Bahea

Paula Kasaresek
gipuzkoa.euskara.net-en
esanak:

“Iruñean –aski inguru erdaldunduan– antzeman dudaren arabera, bikote mistoetako guraso euskaldunek ez dute kasurik gehienetan haurrak euskaldun hazteko gutxienezko erabilera bermatzen. Kontua da haurrak euskaraz eskolatzen dituztela eta azkenean eskolari esker –baina ez guraso euskaldunarekiko harremana aski delako– euskalduntzen dira”.

Euskaraz txioka Mintegi garaile

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO DeustoSareLab-ek Legebiltzarrerako hautagaien kanpainako txioak aztertu ditu (irailaren 23tik urriaren 7ra); zenbat euskaraz eta gaztelaniaz. Laura Mintegi (EH Bildu) izan da euskaraz gaztelaniaz baino mezu gehiago bidali dituen bakarra; euska-

raz %59,20 eta gaztelaniaz %40,80. Iñigo Urkullu (EAJ) ez da iritsi mezuen laurdena euskaraz egitera (%21,60) eta mezuen %78,30 gaztelaniaz zabaldu du. Euskarazko kopurua kontuan hartuta ondokoa da gainerako hautagaien zerrenda: Aitor Urrestik (Equo) %17,70 euskaraz eta

%82,30 gaztelaniaz; Mikel Aranek (Ezker Anitza) %7 euskaraz eta %93 gaztelaniaz; Gorka Maneirok (UPD) mezuen %0,10 bidali du euskaraz; Patxi Lopez (PSE-EE), Antonio Basagoiti (PP) eta Raquel Modubarrak (Ezker Batua-Berdeak) txio guztiak bidali dituzte gaztelaniaz. ■

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Larrialdi nazionala

HAUTESKUNDE KANPAINA amaiturik, orain promesak bete behar dira. EAEn izan dugun kanpainan, egoera sozioekonomikoak eta laboralak eragin handia izan du. Alderdi eta koalizioek langabeziaren larritasuna, murrizketa sozialak eta ongizatea desegitea salatu dute, eta hitz eman dute egoera horri erantzun gaitela. Ia guztiek, beraz, konpromisoa azaldu dute gizartearen aurrean soluzioak bilatzeko, hala nola: enplegua sortzeko eta formula berriak aztertzeak fiskalitatearen bidetik, gehien dutenei gehiago kargatuz. Langabeziaren igoera (190.000 lagun irailean), batez ere gazteen artean; pobreziaren gorakada (100.000 pertsona inguru); gero eta enpresa gehiagok ateak itxi edo soldata ordaintzeari uztea; etxetik kanporatzeak; emigrazioa; adinekoentzat egoitza publikorik ez egotea; menpekotasuna duten pertsonentzat diru-laguntzak gutxitzea... Horrek guztiak gure jen-

dartearen argazki erreala osatzen du. Eta gehitzen badiogu krisiari aurre egiteko tresna hobeak edukitzea eragozten digun subiranotasun ekonomiko eta politikorik eza, argazkia osaturik geratzen da. Larrialdi nazionala islatzen duen argazkia.

Egoera horrekin, justua, beharrezkoa eta desiratzekoa litzateke, EAEko gobernu berria osatzen denean, haren buru denak alderdi guztiak deitzea, baita enpresariak, sindikatuak eta mugimendu sozialak ere, eta fronte orokorra sortzea –deitu hitzarmen edo deitu akordio– gizartearen eta nazioaren larrialdi egoerari aurre egiteko. Fronte horren lehentasuna izan behar luke enplegua eta aberastasuna sortzea, ongizatea mantendu eta indartzea, egiazko erreforma fiskala martxan jartzea –gehien dutenak gehiago kargatuz– eta erabakitzeko eskubidea errespetaraztea. Hauteskundeetako promesak betetzeko modua litzateke hori. ■

Juan Mari Arregi



Transgenikoek kantzerra dakartela demostratu dute

Fukushiman atomoarekin gertatu bezala, transgenikoen komertzioan bonba lehertu da Frantzian. Denbora kontua baino ez da gure artera iristea ez tandaren eraginak. Bat, Genetikoki Eraldatutako Organismoek (GEO) osasuna kaltetzen dutela demostratu da. Bi, eztabaidan ikusi da multinazionalen kontrolik eza zein beldurgarria den.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZERBAIT JAKIN DA EUSKAL HERRIAN ere, Frantziako zientzialari batzuek demostratu dutela GEOek minbizia eragiten dutela. Laster jaurti diete gorotza gainera, ikerlari ez fidatzekoak, sagu bereziak, fundamentuzko prozedurarik ez. “Azken finean batzuek diote gauza bat, besteek bestea, ezer garbirik ez”.

Horrelako kontsolamenduen aldekoa izan behar du Eusko Jaurlaritzan osasun sailburu den Rafael Bengoak, emakumeen bularreko minbizian euskotarrak zein aitzina-mendu handiak egin dituzten gorai-patzean berotu eta esan duenean: “*Este es un buen momento para tener un cáncer de mama, y mejor en Euskadi que en el resto del Estado porque es evidente que podemos intervenir más y mejor*”. Halako pagotxarekin, zertarako kezkatu kantzerren jatorriez?

Bengoa jauna horrela mintzo zen egun berean TF5 telebista publiko frantsesak erreportaje zabala eskaini zuen arratoi emeei titietako kantzerra eragiten dien zerbaitez: OGM, *vers une alerte mondiale* (GEO, mundu mailako emergentzia, libreki euskaratuta). Gaia: Gilles-Eric Seralini buru duen taldeak Monsantoaren arto transgenikoaren toxikotasunaz egindako ikerlanaren xehetasunak.

Hilabete luzez Clément Fonquernie eta François Le Bayon kazetariak jarraitu eta filmatu dute

Seralini eta bere taldeak Criigen elkarteak eta Charles Léopold Mayer fundazioek babestu eta hein batean Carrefour bezalako banaketa korporazioek —antza, behi eroen eskandaluarekin eskarmentua harturik— finantzatzen lagundutako ikerlana.

Transgenikoen, kimikaren eta hazien multinazionalen beldurrez, isilpe zorrotzean aritu dira ikerlariak. Hazia berme osoz eskuratzea, arratoientzako janari bihurtzea, zertifikazioak, ekipoa osatzea, isilpean aritu beharra... hor bada gaia beste film baterako, *thrillerra* seguru.

2009an abiatuta, 2011ko abenduaren 16an aurkeztu zituzten lehen emaitzak, Criigen elkartearen Parisko egoitzan, atek itxirik. Ikerlan bikoitza, Monsantoaren NK603 arto transgenikoaren eta konpainia beraren *Roundup Ready* pestizidaren eraginak behatu dituzte laborategiko arratoietan, erakutsiz baietz, minbizi kopurua nabarmen handitzen dutela, batak bakarka, besteak eta biek elkarrekin.

Lehenagoko ikerlan guztiak industrialek berek emandako informazio hutsez egin direla salatu du Corine Lepage ingurumen ministro ohiak. Multinazionalak, pixkanaka azaldu diren dokumentuek erakutsi dutenez, bazekiten pestizidek bezala transgenikoek kalteak eragiten

Frantziako telebista eta agentziek hedatutako irudietan, Criigen laborategia baitan Gilles-Eric Seralini irakasleak eta bere taldeak bi urtez zaindu dituzten arratoietako batzuk. Hirurek dauzkate tumore ikaragarriak. Eskuinekoak arto “klasikoa” jenez, Monsanto konpainiaren Roundup pestizidaz kutsatutako ura edan du hilabete luzez, hura usatzen den sorotetan edozein herritarrek nozitu dezakeen dosian. Erdikoa Roundupez tratatutako sorotetan hazitako Monsantoaren NK603 arto transgenikoz bazkatu dute. Ezkerrekoak pestizidarik gabe hazitako NK603 arto transgenikoa jan du. Gainerakoan, Seraliniren ikerlanak munduan zabaltzen duen zalapartarekin onura bat gehiago ekarri dio gizarteari: GEOen propagandistek, Seralinirena mesprezuz abaildu nahi izan dutenek, beren ikerlanak galbahe beretik pasatu beharko dituzte aurrerantz.

zituztela, baina hauek estatistikoki txikiak zirela sinetsi egin behar zitzaie, industriako sekretu ditxosozkoan babestuta xehetasunik emateari uko egin diotelako beti.


Bitxikeria bat: Europar Batasunak multinazionalen funtsean ez die eskatzen GEO landare bat beste arrunt baten berdina dela azaltzea baizik, ez zaie eskatzen produktu kimikoen zorrotasunez testatzea haien osasunaren garapena.

Seraliniren ikerlana alde askotatik da berria: bi urteko ikerlana da eta ez hilabete bakan batzuetakoa, arratoi kopuru handi batekin burutu da, parametro asko —odola, pixa, organoak eta abar— aztertuz, tartean orain arte ukitu gabe zeuden hormonalak.

Moratoria GEOentzat

Lau modutan elikatu dituzte arratoiak: bat, ohiko elikagai ez-GEO kutsatugabe; bi, aurrekoak bezala baina edarian Roundup pestizida erantsita; hiru, pestizidarik gabeko GEOz, eta lau, Roundupez tratatutako GEO artoz.

GEO artoa hautatu da European gehien ereiten delako eta Roundupa transgenikoen hiru laurdenak pestizida hori toleratzeko sortu direlako. Zenbat Roundup? Hiru dosi ezberdinetan: batetik, nekazaritzan darabilten inguruetan herritarrek iturri-



ko uretan hartzen dutena, bigarren landareak jasoko duena adina, eta azkenik Roundupa darabilen nekazariak jasoko duenaren erdia.

Emaitzetan, lehen ondorioa hil-kortasun tasak erakusten du: GEOz elikatutako arratoi emeen artean %600 gehiago dira hilak. Ez dago estatistikan aditua izan beharrik ulertzeko.

Kontua da hil-kortasun tasak 3 hilabetetik aurrera hasten direla nabarmentzen ikerlan honetan. Kasualitatez bezala, multinazionalak Europako agintariei erakusten dizkieten ikerlanetan arratoiak gehienez hiru hilabeteraino aztertzen dira.

Seraliniren ekipoak arratoiak mundualdia osatzea baimendu die,

ikerlanak funtsa izan zezan, eta hil ahala disezcionatuz aztertu du 200 animalietako bakoitza. Hilabeteak aurrera joatearekin, GEOz elikatutakoetan tumoreak ugarituz doaz. Gero eta handiagoak, animalien pisuaren laurdena adinakoak batzuetan. Ikaragarritzko kozkorak.

Tumoreak emetan %94 titietakoak dira; arretan giltzurrun, urdail, heste eta abarretakoak, baina hauek ere badira titietakoak, Seralinik dioenez “nahikoa gauza bitxia eta adierazten diguna hor badela hormonon arazoren bat”.

Aldiz, eraginak ez dira irentsitateko dosiaren arabera, eta hau ere aurkikuntza bat da. Arratoi biziak aurrera joan arau, dosi txikienetatik handiagoetara tumore arazoak ez

dira proportzioan handitzen, eta alderantziz: “Agian honek erakusten digu dosi txikiak saturatu duela sistema”, argitu du Seralinik.

Esperekin, hala ere, ezusteko berezi bat azaleratu du. GEO artoa kontsumitzeak kalteren bat eragitekotan toleratutako pestizidagatik izatea espero baldin bazitekeen, ikerlanak proposatu du transgenesiak berak ere ondorioak dituela, landarearen genomak esku hartzeak dakartzala kalteak sortzaileek aurreikusi gabeak.

Seralinik aurkitu du transgenikoz elikatze hutsagatik arratoiak, eta batik bat emeak, azkarrago hil direla. Zergatik eta nola eragin du landare baten gene bat aldatu izanak hura irentsi duen abere baten organismoan tumorea edo bestelako gaixotasunak sortzea? Lan handia egin beharko da prozesuak ulertzeko, geneek bizitzaren mekanikak darabilten jardura oso hein txikian ezagutzen baita oraindik.

Europar gaur arto eta patata transgeniko bana baizik ez daude legeztatuta nekazaritzan. Aldiz, mundu osotik Europak 27 milioi tona GEO soja dakar azientzarak bazkatzeko. Askoz handiagoa da mundu osotik helduta elikagaiekin europarrek ahoz hartzen duten GEO kopurua. Seralinaren eskaria garbia da eta bikoitza. Bat, moratoria GEOentzat. Bi, ikerketa serio eta independenteak GEOen gisako edozer legeztatutako aurretik. Prekautzio printzipioa aplikatzea baizik. Baina zuhurtasuna eta gardentasuna eskatzea iraultzailea dirudi gaur. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Tren lasterra birpentsatu

PARISERA abiadura handiko trenean bidaiatu duenak eta txartela Internetez erosi, sarri jasoko ditu eskaintza miragarriak: Hendaia-tik Parisera 35 eurotan, 20 eurotan... Berdin Europako beste hiriburu batzuekin ere. Hegazkinez norahi bidaiatzeko kostu txikiko txartelez zer esanik ez. Herritarra, oro har, harro da halako pagotxari heltzeko aukera duenean. Nonahi dira—edo batez ere ziren— amuak: duela hiruzpalau urte New Yorkera aste-buru pasa eta erosketak egitera joatea zein moderno eta errentagarria zen saltzen zuten Espainiako egunkarietako erreportajeek. Neskatilendako bideo jolasetan araka dezakezu Interneten eta ikusi Parisen erosketak egitea zer *guai* eta *txatxipirulia* den: “egun osoa pasatu ahal izango duzu bertan, erosi eta erosi”. Eta AHTrekin Donostiatic Bilbora aurreratuko duzun ordu laurden hori?

Ondorioak argiak ziren, bidaiatu eta erosi berdin zoriontasuna; edo gurera etorrita, Euskal Y-a berdin ongizatea. Duela 30 urte ere oso ezagun egin zen esatera hura, Lemoizko zentral nuklearra egin ezean azak besterik ez genituela jango. Duela 30 urte egin zuten Madril-Sevilla AHT ospe-tsua, eta gaur egun Sevillan %30eko langabezia dago.

Baina Errauskineri gauerdia iritsi zaio eta ezusteko krisi baldar eta zantar batek bere ametsa bertan behera utzi du. Urtetan Euskal Y proiektua eta gure ongizatea lokarri sendoz lotu dituzte erakundeek, eta hala jarraitzen dute egiten, baina apalago, gaur egun murrizketek eurek adierazten baitute ongizatea zerekin dagoen lotua. Eta are eta garrantzitsuago, gero eta argiago ikusten da murrizketetan eta

ongizatean zerk eragiten duen benetan: Euskal Y-aren kilometro bakoitzak 25 milioi euro balio du, adibidez, eta Espainiaren esperientziak erakusten du mantenu gastuetan urtean kilometro batek 100.000 eurotik gorako gastua duela (tunel barruan 200.000 euro, eta Euskal Y-an 172 kilometrotik 104 halakoak dira).

Kontua da Espainiak bere aurrekontuaren %40 moztu diola aurtun Euskal Y-ari eta, Eusko Jaurlaritzaren ustez, gaitza izango dela lanak 2016rako bukatuak izatea. Nafarroan egoera larriagoa da,

Arrazoi asko leudeke faraoien obra hau birpentsatzeko, besteak beste, oraindik gehiena egin gabe dagoelako, eta eginda dagoena bestelako tren mota bat egiteko balia litekeelako

Castejon-Iruñerria arteko zatia egiten hasi berri dira eta 2013rako Espainiak erdira murriztu du AHTko lanei eskainitako diru kopurua, eta datozen hiru urteetan ere antzeko joera espero da, okerragoa ez bada. Nafarroan zalan-tzan jartzen da lanak 2020rako ere bukatu ahal izango diren. Castejon eta Zaragoza arteko Nafarroako zatiak 250.000 euro izango ditu 2013an eta Espainiako Gobernuak bertan behera utzi ditu ibilbide horretan Aragoiko zatirako aurreikusita zituen 59 milioi euro.

Euskal Y-a abiadura handiko irla gisa gera liteke. Espainiatik Lisboa-rantz doan adarrak jai du urte luzez, Zaragozatik Madrileranzkoa aipatu dugu eta Gasteiztik Hegoaldera ere larri. Eta Europarekiko lotura ospe-tsua? Gaur egungo errealitatea da

Frantziak gero eta baztertuago duela Bordeletik beherako tren lasterra. Ipar Euskal Herrian ere oposizioa gero eta indartsuagoa da eta, gainera, alternatibak gero eta sendagoak (oraintsu Hego Lapurdik, Aturri-Errobi eta Errobiko mankomunitateek aurkeztu berri dute txosten esanguratsua).

ARRAZOI asko leudeke faraoien obra hau birpentsatzeko, besteak beste, oraindik gehiena egin gabe dagoelako, eta eginda dagoena bestelako tren mota bat egiteko balia litekeelako. Funtziotan den Lope

lehendakariak honakoa zioen duela gutxi: “Guk inork baino gehiago egiten dugu AHTaren alde”. Eta Roberto Bermejo EHUKo irakasle neka-gaitzak zera erantzun zion berriki *Deia*-n egindako elkarrizketa interesgarri batean, “bai, baina hori ona edo txarra da? Mundua beste bideetan dabil gaur egun eta ergelkeria bat egiten ari zara, hori da nik ezagutzen ditudan garraioaren aditu guztiek diotena”.


Gaitza izango da agintariak moratoria gisakorik onartzea, besteak beste dozenaka enpresaren presioa dutelako ganean, baina oraindik ez litzateke berandu. Inbertsiorik handienak egiteke daude, tren erdua birformulatze-ko aukera dago eta, gainera, dirutza horiek urrea lirateke ekonomia sarea sustatzeko.

Bai, Alvaro Amann Jaurlaritzako sailburu ohiaren profetia betetzen ari da, baina ez zehatz-mehatz berak zioen arrazoiengatik: “Herri-tarrok gorriak pasatuko ditugu 2010erako Euskal Y-rik egiten ez badugu” (*Larrun*, 2005eko apirila). ■



ASTE HONETAKO

zozketa




Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Iruñeko Planetarioa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

STM San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

3



Tripoli-Kabul Karlos Zurutuza

5 harpidedunentzat
liburu bana opari

Gaumin argitaletxea
Irun GIPUZKOA

www.gaumin.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2340. Argia)

GAMETXO HOTELA

• Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Lierni Arrieta Irureta (Oíartzun)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

OKATXU komikia

- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)
- Xabier Zendoia Aizpurua (Zumaia)

JORGE OTEIZA Fundazioa Museoa

- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)
- Imanol Irizar Intxausti (Pasaia)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

KOLONBIAN BAHITUTA liburua

- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)
- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)
- Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)
- Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)
- Ana M. Zubiarremertería (Eibar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





Laguntzaileak:

berria^{info}
GARA

BARRURA BEGIRATZEKO LEIHOAK



ESTREINALDIA URRIAREN 27an
Bilboko Bizkaia Aretoan 19:00etan
(UPV/EHUko paraninfo berria)

ZUZENDARIAK JOSU MARTINEZ TXABER LARREATEGI MIREIA GABILONDO ENARA GOIKOETXEA ETA ENEKO OLASAGASTI
ARGAZKIA JUANXO SARDON ALTUNA SOINUA BEÑAT GANTXEGI MUSIKA PASCAL GAIGNE MUNTAIA ETA POSTPRODUKZIOA MAIALEN SARASUA
EKOIZPENA ISER MANZARBEITIA JONE ZUAZO HAIZEA BELZA KORO ETXEBERRIA
OFF AHOTSA TITTIKA REKALT ARTE ZUZENDARITZA SATUR IDARRETA
KOMUNIKAZIOA JOSEBA KAMIO IASONE PARADA KOORDINATZAILEA JOSU MARTINEZ